

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2019ko azaroa / 299. zenbakia

www.oñati.eus  



LARRAÑA ETXEAK URTEBETE

Errefuxiatuentzako harrera zentroak urte bat bete du. Bertako bizilagunak gustura eta eskertuta daude Oñatin.

Aro berri baterako cloud aplikazioak

01 Seguruak

02 Azkarrak

03 Malguak

04 Eskalagarriak

05 Honitzailearekiko
independentek

06 Mendekotasun
tekniko
gutxikoak

07 Bezeroaren
branding-era
egokituak

08 Merkaturatze-
denbora
gutxi behar
dutenak

09 Etorkizunerako
prest



MAGNET

magnet.coop

info@magnet.coop

Gobernantza eta parte hartzearen inguruko araudia lantzen ari da udala



Araudiaren zirriborroa herriko eragileekin kontrastatzeko hiru saio egingo dira, herritar guztiei irekiak

Anik Zubizarreta udaleko Partaidetza batzordeko burua, Onintza Andres, partaidetza teknikaria, eta Mikeldi Zeberio (Emun Aholkularitza)

Oñatiko Udalak badaramatza urte batzuk herritarren partaidetza udal politiken erdigunean jartzeko urratsak ematen, partaidetzazko eta harremanetan oinarritutako gobernantza baterako bidean.

Ibilbide honetan parte hartzean oinarritutako hainbat prozesu, gune eta esperientzia jarri dira martxan. Azken urteetan nabarmentzekoak dira Eltzia edo 'Partaidetzazko Aurrekontuak' moduko prozesuak.

Udalak uste du denbora tarte honetan, pixkanaka pixkanaka, esperimentatzeko,

hutsegiteko, asmatzeko, ikasteko eta hobetzeko aukera izan duela, eta nahikoa esperientzia metatu duela. Horregatik, GOBERNANTZA ETA PARTE HARTZEAREN GAINEKO ARAUDIA lantzen hasi zen urte hasieran.

Udalak ez du soilik partaidetzarako eskubidearen aitortzan geratzerik nahi. Horregatik, gobernantza eta parte hartzeari buruz udalaz gaindiko araudiak derrigortzen dutenetik haratago, oñatiarrentzat gaur egungo gizarte testuingurura egokitutako araudia lantzeko asmoa du.

KONTRASTE FASEA

Lanketa prozesuko lehen fasea bukatzeaz dago. Fase honetan ezaugarri eta tamaina desberdineko hainbat udalerri-tako ordenantza eredugarriak errebisatu dira eta hauetan oinarrituta Oñatira egokitutako araudiaren zirriborroa landu. Lanketa honen muina udaleko hainbat ordezkari tekniko eta politikok egin du, EMUN aholkularitzak lagunduta.

Bigarren fase batean orain arte landutakoa herriko eragileekin kontrastatu nahi du udalak, eta horretarako 3 saio antolatu ditu (ikus behoko taulan). ■

Arautegiaren zirriborroa kontrastatzeko saioak

AZAROAK 19	AZAROAK 26	ABENDUAK 4
Kontraste saioa elkarteetako kideekin	Kontraste saioa herritarrekin	Kontraste saioa eragileekin
GAIAK Ordenantzaren zirriborroaren aurkezpena. Elkartegintzarekin lotutako gaien lanketa: elkartegintza sustatzea eta elkarlan publiko-soziala	GAIAK Ordenantzaren zirriborroaren aurkezpena. Herritarren parte hartzeko eskubideekin lotutako gaiak: parte hartzeko guneak eta bideak	GAIAK Ordenantzaren zirriborroaren aurkezpena. Parte hartzeko guneen atalen lanketa: kontseiluak, batzordeak, foroak...
Saio guztiak udaletxean izango dira (18:00-20:15) / Herritar guztiei irekiak		

LARRAÑA ETXEA

bizikidetza eta lankidetzaren eredu

Iazko urriaren 14an iritsi zen aurreneko errefuxiatu taldea Larraña Etxera, ongi etorria ematera bertaratu ziren dozenaka herritarren txalo artean. Une hunkigarria izan zen, bereziki etorkinetako batek Laboaren 'Txoria txori' abesten hasi zenean. Urtebete igaro da orduz geroztik eta, oro har, esan liteke, esperientzia oso positiboa gertatzen ari dela. Herritar ugari ari da laguntzen, modu batera edo



bestera, errefuxiatuen Oñatiko egonaldia ahalik eta goxoena eta probetxugarria izan dadin, eta Larraña Etxeko bizilagunak, oro har, gustura eta eskertuta daude. Lehenengo urte honetan 230 bat errefuxiatu iritsi dira Oñatiko harrera zentrori, eta horietatik 160 bat joan dira, dagoeneko, Madrilgo Berne Ministerioak izendatutako beste zentro edo etxe batera, harrera prozesuarekin jarraituz.



Urtebetean 230 errefuxiatu pasa dira Larrañako harrera zentrotik. Oñatiko egonaldia duina eta probetxugarria gerta dakien hainbat herritar ari da laguntzen.



ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

Aran
Hernández

Zure ETXEA eguneratu gubeneneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua erazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com





Nerea Maiztegi oñatiarra lazko abenduaz geroztik ari da lanean Larraña Etxean; gobernanta lanetan hasieran, eta gizarte laguntzaile, ekainaz geroztik. Pertsonalki, esperientzia oso aberasgarria izaten ari dela esan digu, eta azpimarratu egin nahi du herriak, oro har, errefuxiatuenganako erakutsi duen elkartasuna

edozein tokitan izan daiteke), harrera programarekin jarraituzera, asilo edo babes eskaera tramitatu bitartean.

Afrikarrak dira gehienak?

Hasieran Saharaz hegoaldeko mutil gazteak ziren ia denak, baina migrazio bide hori blokeatuta dago, eta azkenaldian Latinoamerikatik iristen ari dira asko.

Gizonezkoak dira gehien (%75), baina emakumeak ere (%15) gero eta gehiago iristen ari dira, eta baita familia eta adin txikikoak (%10) ere.

Zer eskaintzen die Larraña Etxeak?

Bizileku seguru bat asilo eskaeraren tramiteak irauten duen bitartean. Lo-lekua, otorduak, laguntza juridikoa, osasun arreta... Tamalez, nazioarteko babes eskaerak asko ugaritu dira, bulegoak kolapsatuta daude, eta itxarondia gehiegi luzatzen da.

Bien bitartean zer egiten dute hemen?

Saiatzen gara egonaldia ahalik eta probetxugarriena izaten beraientzat. Astean bi egunetan Helduen Eskolara joaten dira eta, horrez gain, ikastaro, tailer eta aktibitate ezberdinak antolatzen ditugu herritar boluntarioen laguntzari esker: informatika, gaztelera, euskara, joskintza, yoga...

Kirola ere asko egiten dute eta horrek asko laguntzen die. Futboleak ia egunero jokatzen dute (aurten ere Herriko Futbol Txapelketan parte hartuko dugu), eta ki-

» **NEREA MAIZTEGI** / Larraña Etxeko gizarte laguntzailea

“Oso aberasgarria izaten ari da errefuxiatuekin lana egitea”

Gizarte laguntzailea zara. Zein da zure lana Larraña Etxean?

Ordu asko sartu behar izaten ditut ordenagailuan, txostenak, eskaerak eta bestelako tramite burokratikoak egiten, baina, horrez gain, Larraña Etxean bizi diren pertsonengandik ahalik eta gertuen egoten saiatzen naiz, egunerokotasunean dituzten beharrei erantzuten, konfiantza giroa sortzen eta ahalik eta

tratu goxoena ematen.

Zenbat jende dago bertan?

Batzuk joan, beste batzuk iritsi, joan-etorria etengabea izaten da, baina, bataz beste, 80 bat pertsona egoten dira.

Urte osoan zehar, zentroa ireki zenetik gaur arte, 230 errefuxiatu izan ditugu, eta horietatik 160 bat joan dira, Madrilgo Barne Ministerioak izendatzen dien zentro edo etxeren batera (estatuko

«Uste dut oso polita eta positiboa dela Larraña Etxearen inguruan sortzen ari den lankidetzako markoa, CEAR, erakunde publikoak, herritarrek eta bertako bizilagunen artean»

roldegira ere joaten dira, txandaka, udalak uzten dizkigun txartelak baliatuz.

Herritar boluntarioak aipatu dituzu. Jende asko animatu al da?

Bai, oso positiboa izaten ari da herritarren inplikazio maila. Denera, 30 bat lagun dabilta, aktibitate ezberdinetan, baina beste asko ere etorri zaigu edozertan laguntzeko prest (medikuarengana laguntzeko, herria erakusteko, pasioak emateko...) beraien denbora eskainiz. Uda partean dei berezia egin genuen, urtean zehar diharduten kolaboratzaileei atsedena emateko, eta erantzuna bikaina izan zen.

Hermansoloña taldearekin ere kolaboratzen dugu (hango biltegiak laguntzera joaten dira gure bizilagun batzuk), Oñatiko Elikagaien Bankurako produktuen garraioa ere hemengo egoiliarrek egiten dute asteartero Bergaratik, Udalarekiko harremana ere oso ona da... Uste dut oso polita eta oso positiboa dela Larraña Etxearen inguruan sortu den lankidetzaren markoa, erakunde publiko, herriko talde eta herritar boluntarioen inplikazioari esker. Gu oso eskertuta gaude, eta uste dut herriarentzat ere positiboa izaten ari dela.

Zer diote Oñatiri buruz?

Oro har oso gustura daude eta oso eskertuta. Badago, noski, Oñati herri txikiegia iruditu zaionik, edo Larraña Etxea handiegia dela esan digunik, baina gehienak pozik eta eskertuta daude.

Hemendik joandako askok harremanetan jarraitzen dute, eta hori nahiko esanguratsua da. Oñatira bueltatuko direla esan digutenak ere badaude, hemen bizitzen gelditu nahi luketenak, harreman sare polita egin dutelako.

Historia eta esperientzia



Goian, euskara ikasten, udal Euskaltegian, eta Hermansoloña taldearen lokalean laguntzen. Ezkerrean, gaztelarazko eskola hartzen eta Herriko Futbol Txapelketako saria jasotzen. Modu batera edo bestera, errefuxiatuek Oñatin egin beharreko egonaldia probetxugarria izatea da helburua, eta horretarako beharrezkoa da herriaren inplikazioa.

oso gogorrek bizi izandako jendea izango da, ezta?

Bai. Saiatzen naiz beraien intimitatean ez sartzen, baina barrena askatzea ere ona izaten da, eta norbaitek hitz egin nahi badu, entzuteko prest egoten gara. Baina ez diet askorik galdetzen; nahi duteneraino kontaktzen dute, eta hor amaitzen da.

Onartu behar dut istorio gogorrek ezagutu ditudala, barrena ukitzen dizutenak, eta negarrez amaitu dudala behin baino gehiagotan, batez ere haurren istorioak tartean direnean. Baina nahiago dut

horretan utzi, konfiantza eta intimitate giroan kontaktutako bizipenak direlako.

la urtebete daramazu betan lanean. Zer moduz?

Pertsonalki oso aberasgarria izaten ari da. Aurretik buru osasunaren arloan aritu izan naiz lanean, eta ez nuen ezagutzen nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen errealitatea, eta asko ikasten ari naiz. Konturatu naiz ez dela hain urrutikoa, eta edozein momentutan egon daitekeela gutako edozein antzeko egoeran. ■

ARANTXA CHACON

Larraña Etxeko zuzendaria



«Oso positiboa da lehenengo urteko balantzea»

Larraña Etxearen lehenengo urte honetako balantzea oso positiboa da. Uste dut proiektu oso polita sortu dugula denon artean (hemengo bizilagunak, herritarrak, erakundeak, CEAR...) eta oso ondo integratu dela Oñatiko bizitzan. Denon artean errefuxiatuei harrera duina egitea lortzen ari gara, eta erakutsi dugu posible dela, normaltasun osoz, harrera egitea jatorri eta izaera hain ezberdinetako pertsonen, herriaren eguneroko bizitzan integratuz.

Baina ezin gara erlaxatu. Gizartea, oro har, eta errefuxiatuen errealitatea, bereziki, oso aldakorra da, eta adi egon behar dugu sortzen diren behar berriei erantzun egokia emateko. Orain arte bezala, eguneroko lanaren bidez aldarrikatu behar ditugu pertsona hauen benetako eskubideak, eta Oñatin egin behar duten egonaldia ahalik eta goxoen eta probetxugarriena izaten saiatu. Horregatik, oso inportantea da herritarrak eta erakundeak elkarrekin lanean jarraitzea, orain arte bezala.

Larraña Etxeko egoiliarrak

MAMADOU BELLA GUINEA CONACRY

» 19 urte ditu eta orain dela bi alde egin zuen sorterritik, egoera politiko jasangaitzetik ihesi. Gibraltarko itsasartea gurutzatuta iritsi zen Espainiara eta Andaluzian hilabete batzuk pasa ostean, iazko abenduan iritsi zen Oñatiko Larraña Etxera. Oso gustura omen dago bertan, eta hitz onak baino ez ditu Oñatiko herriarentzat; "herri ona da, eta bertako jendea oso abegitsua". Euskal Herria asko maite du eta, etorkizunean, bertan bizitzen gelditzea gustatuko litzaioke.



JESSICA JULIETH KOLONBIA

» 24 urte ditu eta duela bost hilabete iritsi zen Oñatira, 5 eta 3 urteko bi semerekin, eta 8 hilabeteko haurdun. Hementxe jaio zen *Bryan* txikia, duela lau hilabete. Oso eskertuta dago Oñatin eta, bereziki, Larraña Etxean jaso duen laguntza eta babes handiagatik. "Hiru urtez bahituta egon nintzen Kolonbian, eta hemen lagundu didate iragana gainditzen eta etorkizunera begira jartzen". Semeei aurrera irteten laguntzea eta pertsona bezala hazten jarraitzea dira bere helburuak.



SADIKOU TCHANILE TOGO

» 27 urte ditu eta iazko azarotik dago Oñatin. Sorterrian zegoen gerra girotik ihesi, 2018ko uztailean iritsi zen Espainiara. "Bilbon kalean ibili nintzen denbora batez, eta CEAREk ireki zidan Oñatira etortzeko bidea. Oso eskertuta nago". Oso gustura dago Oñatin. "Herri-tarrak oso eskuzabalak dira eta Larraña Etxean oso giro ona eta lasaia dugu. Izan afrikarra, izan latino, ondo konpontzen gara, eta saiatzen gara elkarri laguntzen eta elkarrengandik ikasten. Denok gara berdinak".



Larraña Etxean diharduten boluntarioak

ARANTZA IRURZUN GAZTELERA IRAKASLE

» Iazko azaroan hasi nintzen Larraña harrera zentroan kolaboratzen; hasieran, itzultzaile lanak egiten futbol partiduetan, eta gero, gaztelera irakasle. Astean bi egunetan etortzen naiz, eta beste egun batzutan irteerak edo ibilaldiak egiten ditugu, herria eta inguruak ezagutu ditzaten eta,aldi berean, mintzapraktika egiteko. Pertsonalki oso esperientzia ederra eta atsegina izaten ari da. Hain esker onekoak dira! Oñatitik joan direnekin ere harremanetan jarraitzen dut *whatsapp* bidez.



HARITZ AZURMENDI FUTBOL ENTRENATZAILE

» Larraña Etxera iristen diren errefuxiatu askok oso gustuko dute futbola eta, hala, taldea osatu eta herriko futbol txapelketan jokatzen hasi ziren iaz, hainbat herri-tarren eta Aloña Mendiren laguntzari esker. Eta horretan aritu da Haritz Azurmendi, beste batzuekin batera. "Aloña Mendiko gazteekin ere aritzen naiz entrenatzaile lanetan, eta Larraña taldea aurrera ateratzen laguntzea pentsatu nuen, astean entrenamendu pare bat eginez. Eta egia esan oso esperientzia aberasgarria izan da".



M^a ASUN ZELAIA GAZTELERA IRAKASLE

» Hona iristen diren errefuxiatuek beharrezkoa dute gaztelera beraien bidean aurrera egiteko, eta horregatik hasi nintzen laguntzen iazko azaroan. Astean bi egunetan etortzen naiz eta, horrez gain, tarteka herrian bueltatxo bat ematen dugu, jende berria ezagutzeko, Oñatiko bizimoduaren parte izaten laguntzeko. Historia eta bizipen oso gogorrak dituzten pertsonak dira eta denon babesa behar dute, beraien egoera zaurgarria arintzeko. Pertsonalki oso aberasgarria izaten ari da.



Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI

"Ezin sindikatuen egungo eskaerei bere horretan erantzun, batez ere soldatetan, Jaurlaritzaren finantzazio estrukturala egokitu gabe"

JUANKAR OLAETA

Kristau Eskolako Biltzar Nagusiko kidea



Azken orduko konponbiderik ez bada, hilabeteko greba deituta dago gaurtik (azaroak 7) aurrera Kristau Eskolako eta gizarte ekimeneko itunpeko ikastetxeetan. Hamar urte daramatzate lan hitzarmena berri gabe, eta mobilizazio dinamika indartu beste aukerarik ez dutela adierazi dute sindikatuek. Juankar Olaetarengana jo dugu, denboran gehiegi luzatzen ari den gatazka honen gakoak ezagutu nahian. Elkar Hezi ikastetxeko zuzendaritza taldeko kidea izateaz gain, Kristau Eskolako Gipuzkoako ordezkaria eta ikastetxe erlijiosoen Biltzar Nagusiko kide da Olaeta.

Bost hilabetetako blokeoa gaindituz, urriaren 28an eseri ziren lehen aldiz, mahai berean, gatazkan zerikusia duten hiru alderdiak: patronalak, sindikatuek eta Eusko Jaurlaritza. Negoziazio prozesu bati ekitea adostu zuten, Lan Harremanen Kontseiluko ordezkari baten bitartekaritzarekin. Nola ikusten duzu auzia?

Negoziazioa guztiz blokeatuta zegoen, Kristau Eskolaren (KE) aldetik mugara erabat iritsita bere proposamenetan. Gehiegi ere bai, nire ikuspuntu pertsonaletik, gero erantzun egokia emateko gaitasunik ez edukitzeko arriskuarekin.

Kristau Eskolan garbi daukagu beharrezkoa dela gure langileen lan baldintzak hobetzea. Ez dela normala lan hitzarmen barik egotea, baina garbi daukagu, soldaten aldetik batez ere, eta hor dago gakoa, aurrerapausoren bat emateko ezinbestekoa dela Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren esku-hartzea. Eta sindikatuek ere badakite.

Beraz, oso positiboa da Hezkuntza saila beste parte bat bezala eseri izana mahaiaren bueltan, baina ikusteko dago ze jarrera hartuko duen eta noraino inplikatu den.

Sindikatuek diote beraien eskaerak neurtuak direla. Kristau Eskolak aldiz, ezin dituela inola ere asumitu eta, bestela, itunpeko sarea desagertzeko arriskuan jarriko lukeela.

Ez naiz baloratzen hasiko sindikatuen eskaerak neurtuak diren ala ez. Uste dut datuak ipini behar direla mahai gainean, eta datuen arabera baloratu.

Guk badakigu, KEko 131 ikastetxeetatik gehien gehienek, epe laburrean, eta guztiek, epe ertain-luzean, ez lukezela ahalmenik izango soldata horiek ordaintzeko, Jaurlaritzaren finantzazio estrukturala hobetu barik. Eta sindikatuek ere badakite.

Bestalde, ez dakit legezkoa ere izango ote litzatekeen momentu honetan Jaurlaritzak bere gain hartzea sindikatuek eskatzen duten soldata igoera (KPI+%3,5), esan nahiko lukeelako ikastetxe kontzertatuetako langileen soldata ia %6 igozteko ikasturte batean, publikoetako irakasleena %2,5 igo den bitartean.

Eta beste gauza bat ere hartu behar da kontuan, alegia, Jaurlaritza ez dela erabat burujabea. Jaurlaritza dago legebiltzarrean onartu behar diren aurrekontuen menpe. Beraz, ardura ez da bakarrik go-

bernuarena; legebiltzarreko beste taldeek ere badute zeresana.

Konponbide zaila, beraz.

Nik uste dut badagoela aukerarik gure lan baldintzetan hobekuntza handiak egiteko (lan kargetan, eskola orduetan...). Ez dut esaten administraziopeko ikastetxeetako langileen baldintzekin erabat berdintzea, baina badago tarte nahiko handia apur bat gerturatzeko. Hor bai ikusten dut aukera aurrera egiteko. Gainera, iruditzen zait langile askok hobeto hartuko genituzkeela halako neurriak.

Kristau Eskolak dio, berak proposatzen dituen baldintza bertsuetan sinatu dutela hitzarmena sindikatuek ikastolatan. Zergatik?

Erreferentzia gisa hartu genuen Partaidetako ikastolek eta LABek adostutako aurre-akordioa, eta berdinduz joan gara (8 proposamen desberdin egin ditugu bide honetan). Eta ez dago aldaketa esanguratsurik bi koadroen artean. Publikoak dira eta konpara daitezke.

Diferentzia nagusia da, ikastolen hitzarmena 2020an iraungitzen dela, eta guk egonkortasun apur bat gehiago nahi dugula, 2023 artekoa-edo, eta horrek exijentzia gehiago du. Baina edukietan, berriro diot, oso-oso antzekoak dira, eta, izatekotan, KErena pittin bat hobea da, besteak beste, soldatari dagokionez. Beraz, galdera da, nola da posible gatazkaren muina soldataren igoera izatea?

27 greba egun azken bi ikasturteetan,

hilabete osokoa orain. Gatazka giro honek ez dio batera mesederik egingo Kristau Eskolaren irudiari. Kezkatzen zaitu?

Aurrena, euskal herritar bezala kezkatzen nauena da, nola den posible, behin eta berriz, greba deialdien aurrean halako aldeak egotea datuetan. Sindikatuek diote %60koa izan dela jarraipena, eta patronalak %12koa. Nola da posible? Ze irudi ematen ari gara?

Guk baditugu datu errealak, soldatatik deskontatzeko erabiltzen direnak, eta garbi ikusten da, azken aldera jais-ten joan dela parte hartzea. Gipuzkoan, adibidez, azkenengo 10 eguneko deialdian %4koa izan zen jarraipena, gure datuen arabera.

Horrekin ez dut esan nahi pozik nagoela horregatik; errealitatea dela baizik. Oso garbi daukagu greba eskubi-dea oso eskubide inportantea dela, eta erabat errespetatzen dugu.

Ondorioei dagokionez, gaur bertan komunikabide batek eman dituen datuen arabera, iazko ikas-urtean 24 greba egin ostean, ikastetxe kontzertatuetako ikasleek selektibitatean lortutako emaitzak aurreko urtekoen oso antzekoak izan dira, beste ikastetxeen maila berean, eta matrikulazioari dagokionez, Kristau Eskolak ez du behera egin ehunekotan.

Oñatira etorrita, zer nolako eragina izango du hilabeteko greba deialdiak?
Joan den astean egindako asanbladan

erabaki zen deialdira atxikitzea eta, beraz, planteamendua egitea eta bozkatzea. Baina, gehienez ere, egun bateko greba egitea.

Ez da ahaztu behar, Elkar Hezi ikastetxearen jabetza fundazio bat (Ereiten) dela, eta langileok ere ordezkaturik gaudela bertako patronatuan. Gainera, kanpoko enpresa batek auditatzen dizkigu kontuak eta, beraz, badakigu zein den gure balantzea eta noraino hel gaitzkeen Jaurlaritzatik gaur egun dugun finantziario estrukturalarekin.

Itunpeko ikastetxeen auziak agerian uzten du, berriz ere, Euskal Hezkuntza

«Negoziazioa guztiz blokeatuta zegoen, Kristau Eskolaren aldetik mugara erabat iritsita bere proposamenetan. Beraz, Jaurlaritza negoziazio mahaian jarri izana beste parte bat bezala, oso positiboa da. Ikusteko dago noraino inplikatu den»

Sistamarako lege baten beharra.

Bai. Uste dut badela garaia pentsatzeko zer nolako euskal gizarte mota nahi dugun: kohesionatutako gizarte bat, ekitate eta inklusioa oinarri dituen, desberdintasuna aberastasun bezala ikusten duena, ala segregazioa, ghettoak eta eliteak sortzen dituen.

Eta ondoren erabaki beharko dugu, gizarte mota horretarako ze hezkuntza sistema behar dugun, eta zein izango diren eragileak: administrazioa bakarrik?

Zilegi da herritik sortutako beste eragile batzuk egotea? Eta nola izan beharko luke horren finantziarioak? Hori guztia jarri behar da mahai gainean, eta uste dut badela garaia Euskal Hezkuntza Sistamarako (EAerako behintzat) lege bat sortzeko. Gaur egun 1991ko Euskal Eskola Publikoaren legearekin funtzionatzen ari gara, eta hezkuntza sistemaren erdia babes gabe dago alde horretatik.

Ildo horretan, sare publiko sendo baten aldeko hautua egiten dute hainbat eragilek. Zer diozu?

Ez dut konpartitzen publiko/pribatu dikotomia hori. Nire gizarte eredua ongizate estatuarena da, non herritar guztien oinarritzko eskubi-deak (osasuna, hezkuntza...) bermatu behar diren.

Eta administrazioak egin behar du bere esku dagoen guztia herritar guztiek, berdintasunez eta doakotasunez, zerbitzu horiek jaso ditzaketela bermatzeko. Baina horrek ez du esan nahi, nire ustez, zerbitzu

horiek guztiak %100ean administrazioak eman behar dituenik. Nik uste dut gizartearentzat onuragarria dela lankidetzaren egotea administrazioaren eta herri-ekimenetik sortzen diren proiektuen artean, publikoak eta, beraz, doakoak eta kalitatezkoak izan beharko luketen zerbitzu horiek herritar guztiei emateko.

Publikotasunak daukan inportanteena ez da zeinek ematen duen, baizik eta zeintzuk jaso ditzaketan zerbitzuak eta zein baldintzatan. ■



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak


Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

A-25

egitaraua

AZAROAK 14

SOLASALDIA: 'Hizkuntza, generoa, arraza eta klasea'.
Hizlaria: Amelia Barquin.
Kultur etxeko atikoan, 18:00



AZAROAK 20

IKUSKIZUNA: 'Cosas de mujeres'. Coralia Rodriguez narratzaile brasildarraren eskutik. Udal liburutegian, 19:00



AZAROAK 21

SOLASALDIA: 'Baliabide pedagogikoak indarkeria matxistei aurre egiteko estrategia moduan' (gaztelaraz). **Hizlaria:** Combos elkarte (Kolonbia).



AZAROAK 22

ANTZEZLANA: 'Panpinak'. Erika Olaizola eta Kamikaz kolektiboaren eskutik (euskaraz). Santa Ana, 22:00.



AZAROAK 25

ELKARRETARATZEA: Oñatiko Sare Feministak deituta, indarkeria matxistaren aurka. Foruen plazan, 18:30.


AZAROAK 28

SOLASALDIA: 'Zaharalduntzea'. Zahartze prozesua begirada feministatik' (euskaraz). **Hizlaria:** Irati Mogollon. Kultur etxeko atikoan 18:00etan.



Indarkeria matxistaren aurka elkarEKIN!

Ekintza partehartzailea egingo da azaroaren 25ean (Foruen plazan, 18:30etan), indarkeria matxista mota ezberdinak bistartzeko



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO ESKURA DAUDEN BALIABIDEAK

- Eusko Jaurlaritzako 24 orduko arreta zerbitzua: 900840111
- Larrialdiak 112
- Udaltzaingoa 943081000
- Oñatiko Gizarte Zerbitzuak 943037700
- Oñatiko berdintasun saila 943780411

INDARKERIA MATXISTAREN IZEBERG-a

Indarkeria sexistak emakumeak menpekotasun eta diskriminazio egoera batean kokatzen ditu.

Egunero indarkeria fisikoa ez diren egoera matxisten lekuko gara. Horietara ohituta gaude eta zorritzarez ez gaituzte harritzen.

Guzti hau **INDARKERIA MATXISTAREN IZEBERG**-ak erakusten du.

Izeberg batek ikusten denaren bolumenaren hirukoitza izaten du ur azpian, muturra sostengatzen. Biolentzia matxistarekin berdin gertatzen da. Ikusten diren hilketak, agresio, bortxaketa... ez dira indarkeri espresio bakarrak. Hainbat forma izan ditzake: irainak, ustezko hitz politak, mespretxua, zapalkuntza, jeloskor izatea, xantaia emozionala, zirriak, sexu jazarpena... eta guzti hauek kolpeak, bortxaketak, hilketak... eusten dituzte.

ERREALITATE MATXISTA hau ikusi eta salatzeke, hau dena bistaratzeko, honen inguruan hausnartzeko EKINTZA PARTEHARTZAILEA EGINGO DUGU.

Plazan hiru panel kokatuko dira, izerbegaren marrazkiarekin eta papertxoak banatuko dira, indarkeria mota bat idatzita duena, izerbeg-ean dagokion tokian (**Agerikoa-Era esplizitua-Ikustezina-Era Sotila**) kokatzeko. HAUSNARKETEKIN Idazteko aukera ere egongo da.

Andraitz



Udaleko Berdintasun sailako teknikaria, *Jone Ariolabengoa*, batzordeko burua, *Anik Zubizarreta*, eta *Izaro Elorza* alkatea, beka deialdia aurkezten. Ikusi deialdiaren oinarriak hemen



Selma Huxley Barkham ikerketa beka emateko deialdia egin du udalak, 18.000 €-ko dotazioarekin

» Oñatiko emakumeek herriari egindako ekarpena balioan jartzea da helburua

Selma Huxley Barkham ikerlari ingeles-kanadiarraren izena duen ikerketa bekaren bigarren ediziorako deialdia egin du udaleko Berdintasun sailak. Historia generoaren ikuspuntutik aztertu eta Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak

aztertzea eta ezagutzera ematea da helburua. Bekak 18.000 euroko dotazioa du eta proposamenak (10-20 orrialdeko txostena) **azaroaren 18a** baino lehen aurkeztu behar dira udaletxeko HAZ zerbitzuan sarrera emanda edo telematikoki (www.oñati.eus). Udaleko Berdintasun sailean dauden ordezkari politiko eta teknikoek, Oñatiko mugimendu feministako kideek eta unibertsitate arloko adituek osatuko dute epaimahaia. Urte eta erdiko iraupena izango du beka; 12 hilabete ikerketa burutzeko, eta 6 hilabete hedapenerako. Informazio gehiago: berdintasuna@onati.eus / 943780411.

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es





Andraitzek antolatutako tailerretako bateko irudia. Urtea amaitu aurretik beste bi saio egingo dituzte, azaroaren 17an eta abenduaren 15ean, Eltzian (16:00-19:00)

LAN AHALDUNTZEKO TAILERRAK

» Zaintza lanetan diharduten emakume migratzaileei laguntzeko proiektua jarri du abian Andraitzek

Zaintza lanetan aritzen diren emakume migratzaileak batu, elkar ezagutu, saretu, kezka partekatu eta beraien eskubideen inguruko informazioa ematea da, besteak beste, Oñatiko Andraitz Feminista taldeak antolatu duen proiektuaren helburua.

Iragan martxoaren 8an hasi zen proiektua mamitzen. Zaintza lanetan inguruko gatazka azalera izan zen orduko mobilizazioen helburu nagusietako bat; Euskal Herrian bizi dugun zaintza eredu emakumeen eta, bereziki, emakume migratzaileen esplotazioan oinarritzen dela salatzea, eta erantzukidetasunean oinarritutako sistema bat aldarrikatzea.

Eta hari horri tiraka, emakume etorkinei laguntzeko ekimena jarri zuen abian Andraitz taldeak, Edurne Ugartek azaldu digun bezala. "Bai, gaur egun zaintza lanetan diharduten pertsonen %90 etorkinak dira, askotan interna moduan, beraien eskubideak urratzen dituzten baldintzetan. Arlo horretan informazio falta handia dagoela uste dugu, baita geure artean ere, eta kezka horretatik abiatuta hasi ginen lanean. Ekintza puntual batera mugatu barik, iraunkorragoa eta eraldatzailegoa izango den zerbait antolatu nahi genuen, eta halaxe hasi ginen kafe-tertulia erako saioak antolatzen, zaintza lanetan diharduten emakumeekin batera".

Udaberri partean egin zituzten aurreneko bilerak. Nora Ugarteburu, abokatu sindikalista eta SOS Arrazakeria taldeko Debagoieneko koordinatzailearen laguntza izan zuten. "Kezka eta zalantza asko agertu ziren mahai gainean, eta oinarritzko informazioa eman genuen Noraren laguntzarekin, baina

gehiago sakondu beharra zegoela ikusita, udaleko Berdintasun sailak ematen dituen diru laguntzak baliatuta, Malen Etxea elkartearekin jarri ginen harremanetan".

Emakume migratzaileen Zumaiako elkarte da Malen Etxea, eta 15 bat urte daramatza emakume etorkinen eta, bereziki, etxeko eta zaintza lanetan diharduten emakumeen eskubideen alde lanean. Besteak beste, aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute, zaintzaren kalitatea eta lan baldintza duinak bermatzen dituzten lan kontratuak sustatuz.

"Oñatiko herriaren errealitatera eta beharretara egokitutako programa bat adostu genuen, lau saiokoa, eta oso gustura

gaude" dio Ugartek. "Zaintza lanetan esperientzia duten emakumeak dira Malen Etxekoak, ondo ezagutzen dituzte kasuistika ezberdinak, eta, gainera, berdietik berdinerara hitz egiten dutenez, beharrezko konfiantza giroa sortzen dute emakume etorkinen artean. Orain arte bi saio egin ditugu, eta urtea

«Lan eskubideak ezagutzeaz gain, emakumeak saretzea, pertsonalki eta kolektiboki ahalduntzea eta, azken batean, berdintasunean sakontzea da helburua»



Edurne Ugarte
ANDRAITZ

amaitu aurretik egingo ditugu beste biak, **azaroaren 17an** eta **abenduaren 15ean** (Eltzian, 16:00-19:00). Zaintzako langileek dituzten eskubideak ezagutzeaz gain, emakume etorkinak saretzea, pertsonalki eta kolektiboki ahalduntzea eta, azken batean, berdintasunean sakontzen joatea da helburua".

Ugartek eskerrak eman nahi dizkie proiektua aurrea ateratzen lagundu dieten elkarte era erakundeei (udaleko Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuen sailak, Oñatiko Sare Feminista, Elkarzabal, Caritas...) eta Lagun Leku elkarteari, bilerak egiteko lokala uzteagatik. ■



ehbildu

Erabaki

BAIETZ!

Udal zerga eta tasak KPlaren arabera eguneratuko dira 2020an

► %064ko igoera orokorra aplikatuko da urtarrilaren 1etik aurrera

► Autokontsumorako eguzki plakak dituztenek %50 arteko hobariak eskuratu ahal izango dituzte Hiri Ondasunen zergan

2020 urterako udal zerga eta tasen ordenantza onartu zuen udalbatzak urriaren 10eko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin. Udalbatzak onartutakoaren arabera, Kontsumo Prezio Indizearen (KPI) arabera (+%0,67) eguneratuko dira zerga eta tasak datorren urtean.

BERRITASUNAK

Urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den ordenantzak jasoko dituen berritasunen artean, azpimarra daiteke %50erainoko hobaria jaso ahal izango dutela Hiri Ondasunen gaineko zergan (OHZ) autokontsumorako eguzki-indarra baliatzeko sistema duten etxebizitzek. Hobaria %25ekoa izango da, erresidentzia-erabilera ez duten eraikinen kasuan.

Bestalde, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari (EIOZ) dagokionez, babes ofizialeko etxebizitzek %50eko hobaria eskuratu ahal izango dute, eskatzaileren diru-sarrerak 24.000€ azpitik daudenean (orain arte ez zegoen mugarik). Hobari honen iraupena hiru urtekoa izango da, lehen erabilpen



EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu zen 2020ko Zerga Ordenantza

baimena eman den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

EIOZ zergarekin jarraituz, autokontsumorako eguzki plakak instalatzeko obrek %95erainoko hobaria eskuratu ahal izango dute.

EAJren ABSTENTZIOA

EAJren udal taldeak ez zuen babestu gobernu taldeak aurkeztutako zerga ordenantza, jeltzaleek egindako zazpi proposamenak (ikus behetako taulan) atzera bota zituelako EH Bilduk.

Izaro Elorza alkateak (EH Bildu) arrazoitu zuen, esanez, EAJk aurkeztutako proposamenak "oinarri gutxikoak eta desorekatuak" direla. Ainhoa Galdosek (EAJ) erantzun zuen, esanez, benetako desoreka udal gobernu taldea sortzen ari dela, udalaren gastu arrunta asko gehitu delako. "Krisia pairatzen duten herritarren kalterako izango da gure proposamenak ez onartzea" gaineratu zuen. ■

EAJren proposamenak

- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.** Ibilgailu hibridoek aplikatzen zaien hobaria %50etik %75era jasotzea, eta elektrikoen hobaria %75etik %95era.
- **Ondasun Higiezinaren gaineko zerga (OHZ).** Erregelamenduz zehaztuko diren hazkunde moteleko espeziez landatutako mendiak 15 urtez salbuetsita egotea OHZ zergan. Babes ofizialeko etxebizitzek OHZn duten %50eko hobariaren iraupena luzatzea 3 urtetik 5era.
- **Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga (JEZ).** %50erainoko hobaria aplikatzea bi kasutan: Batetik, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen 5 urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenentzat. Bestetik, subjektu pasiboek gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenean eta hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian jardueratik lortu duten errenta edo etekin garbia negatiboa edo ordenantza fiskalak ezartzen duen zenbatekoa baino txikiagoa denean.
- **Zabor bilketa tasa.** Merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan langile kopuruaren arabera hobariak aplikatzea.
- **Kiroldegiko tasak.** Kirol ekintzetako tasetan (igerilekua, pilotalekua, tenis pista...) murrizketak aplikatzeko kontutan hartzen den adin muga 21 urtetik 23 urtera igotzea.

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbide: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Zubillaga-Oñati-Legazpi-Zumarraga

► Udana ixteak eragindako kalteak leuntzeko, mikrobus zerbitzua jarri dute martxan Oñati, Legazpi eta Zumarragako udalek

LANEGUNAK (astelehenetik-ostiralera, jai egunak ezik)											
ZUMARRAGA	LEGAZPI	OÑATI				OÑATI				LEGAZPI	ZUMARRAGA
Renfe	Saturmino Telleria	Olabarrieta	San Lorenzo	Posta	Zubillaga	Zubillaga	Posta	Olakua	Olabarrieta	Saturmino Telleria	Renfe
6:50	7:00	7:20	7:25	7:30	7:35	7:40	7:45	7:50	7:55	8:15	8:25
7:20	7:30	7:50	7:55	8:00	8:05	8:10	8:15	8:20	8:25	8:45	8:55
12:50	13:00	13:20	13:25	13:30	13:35	13:40	13:45	13:50	13:55	14:15	14:25
13:50	14:00	14:20	14:25	14:30	14:35	14:40	14:45	14:50	14:55	15:15	15:25
17:50	18:00	18:20	18:25	18:30	18:35	18:40	18:45	18:50	18:55	19:15	19:25
18:50	19:00	19:20	19:25	19:30	19:35	19:40	19:45	19:50	19:55	20:15	20:25

Udalak buru-belarri dihardu Udanako errepide mozketak herritarrei eragindako kalteak arintzeko asmoz. Lehenengo, Oñati eta Legazpi arteko mikrobus zerbitzua jarri zuen martxan, Legazpiko udalarekin elkarlanean, eta ondoren, ibilbidea luzatzea eta geltokiak gehitzea erabaki zuten (Zumarragako udalarekin batera) herritar gehiagori zerbitzu emateko. Goiko taulan ikusten den moduan, autobusak sei joan-etorri egiten ditu egunean, eta Oñatin lau geraleku ditu (Zubillaga, posta bulegoa, San Lorenzo-Olakua eta Olabarrieta). Autobusa dohainik da. Oñati, Legazpi eta Zumarragako udalek hartuko dute bere gain zerbitzuaren kostua.

Komunaren zain Elorregin

Elorregi auzoko elkarateak bertako autobus geltokian komuna jartzeko eskaera luzatu die Oñati, Bergara eta Arrasateko udalei. Bidaieriei ez ezik, bidegorrian dabilen jendeari ere zerbitzua emango lieke eta inguruak garbiago mantentzen lagunduko luke. Oñatiko udala prest dago azpiegitura jartzeko, baina garbitze eta mantentze-gastuetan inguruko herriek ere parte hartzea nahi du, eta gaia mankomunitate mailan aztertuko dutela azaldu digu Maite Anton lehendakariak.

Bestalde, Oñatiko udalak foru aldundira igorri du San Pedron geltokia berrezartzeko zenbait herritarrek eragindako eskaera.



Karta berria

Ardo ezberdinak

EGUNEKO MENUA

11,50€



LAPIKO GORRI

Etxera eramateko zerbitzua (enkarguz)

Ultzezin 11 • Tel. 943 50 20 70
lapikogorrigastroteka@gmail.com



'Laneratzuz' hitzarmena berri dute Udalak, Bidebarrik eta Ulma Fundazioak

► Gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratzeko sustatzea du helburu



Lander Diaz de Gereñu (Ulma Fundazioa), Izaro Elorza (Udala) eta Jon Igartua (Bidebarri), hitzarmena berritzeko ekitaldian

Oñatiko udalak, Ulma Fundazioak eta Bidebarri Enplegu Zentroak iaz sinatutako **Laneratzuz** hitzarmena berri dute. Gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen laguntzea da helburua, lan merkatu arruntean txertatzeko aukerak eskainiz eta, bide batez, gizarteratzen lagunduz.

Bi ardatz nagusi ditu lankidetzako programa honek:

1.- Ulma Taldearen konpromisoa, Bidebarri Enplegu zentroan laneratzeko prozesua amaitzen duten pertsonak ahal duen nerurrian aldi baterako kontratatzea.

2.- 20.000 euroko diru-laguntza lerro bat sortuko da (Udalak eta Ulma Fundazioak 10.000na euro ipiniko dituzte) 50 langile baino gutxiago dituzten herriko enpresei zuzenduta, Bidebarriko laneratzeko prozesua amaitzen duten pertsonak aldi baterako kontratatzea. Programaren deialdia bi urtetan (2019 eta 2020) gauzatuko da.

Mondragon Unibertsitateko ikasleen okupazio tasa %97koa da

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Zerbitzuak egindako azken laneratzeko inkestak emandako datuak dira. 2015eko promozioan Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateetan titulua lortu zuten gazteen okupazio tasa %97koa da.



Horietatik %88k bere unibertsitate prestakuntzarekin bat datorren enplegua du; %90ek lanean dihardu eta %7k prestakuntza jasotzen jarraitzen du.

Lan-lekuari dagokionez, tituludunen %84 Euskal Autonomia Erkidegoan ari da lanean, eta %13 Euskaditik kanpo. Lana bilatzeko batz besteko denbora lau hilabetekoa da. Beatriz Altolazabal Enplegu sailburua eta Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko errektoreak eman zituzten datuak ezagutzera.

Azaroaren 16an egingo diren manifestazioetan parte hartzeko deia luzatu dute pentsiodunek

Mobilizazioak indartzea eta zabaltzea erabaki dute Hego Euskal Herriko pentsiodunen plataformek. Ildo horretan, Oñatiko pentsionistek ere dei egiten dute azaroaren 16an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hiriburuetan egingo diren manifestazioetan parte hartzera.

Laster beteko dira bi urte pentsiodunak kalera irteten hasi zirenetik pentsio duinak aldarrikatzera, eta promesen garaia amaitu dela esan dute. Pertsona guztientzako lanpostu duinak eta behar bezalako pentsio publikoak ziurtatzea exijitzen diete Espainia eta Euskal Herriko gobernuei, horretarako behar diren diru atalak txartatuz aurrekontuetan.

Udalak 129 mila euro gehiago jasoko ditu Foru Funtsetik, 2019ko aurre likidazioaren arabera

Gipuzkoako Ogasunaren zerga bilketa datuak onak izaten ari dira 2019ko ekitaldian, eta horrek bere ondorio positiboak izango ditu herrialdeko udaletan. Izan ere, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik (UFFF) 526 milioi euroekin itxiko du ekitaldia, aurreikusitakoa baino 8 milioi (%2,28) gehiago. Horrenbestez, Oñatiko udalak aurrekontuetan aurreikusitakoa (7,9 milioi) baino ia 129 mila euro gehiago jasoko ditu UFFFtik. Otsailaren egiten da UFFFaren behin betiko likidazioa.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



A-10

HAUTESKUNDE
OROKORRAK

Bozkaleku aldaketa

» Errekalde inguruko bizilagunek Santa Marinako ikastetxean bozkatu beharko dute azaroaren 10ean

Errekalde, Bakardadeko Ama, Mendiko Kale, San Anton eta Maiatzaren 1-eko 4 zenbakiko bizilagunek bozkaleku berria izango dute aurrerantzean. Orain arte, Errekaldeko haur eskola zaharrean ematen zuten bozka, baina hemendik aurrera (azaroaren 10ean hasita) Santa Marinako Elkar Hezi ikastetxearen eraikinera joan beharko dute botoa ematera.

Errekaldeko haur eskola zaharrean hautes-mahai bakarra (1-4-U) zegoen, eta Udalak egokiago ikusi du mahai hori Santa Marinako ikastetxera eramatea, bertan beste hiru mahai daudelako, eta Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak ontzat eman du aldaketa.

Olakuako kirol gunea hobetzeko lanak egiten ari da udala

Partaidetzako Aurrekontuetan herritarrek aukeratutako proposamenetako bat da

laz burutu zen Partaidetzako Aurrekontu prozesuan herritarrek aukeratutako 16 proposamenetako bat izan zen Olakuako kirol gunea hobetzea, eta ondoko argazkian ikusten den moduan, hasita daude lanak.

Orain arte, argiteria berritzeko azpiegitura lanak egin ditu udal brigadak, eta, bide batez, urmaelerako bidean zeuden eskailera mailen ordeztu bi arrapala egokitu dituzte, inguru horretako irisgarritasuna hobetuz.

Kirol guneari dagokionez, zoruari erretxina geruza bat emango diote, gutxiago irristatzeko eta kirol jardunerako goxoagoa izan dadin.



Udal brigadako langileek egin dituzte azpiegitura eta urbanizazio lanak

Gainera, saskibaloirako lau kanasta berri ipiniko dituzte eta baita itxitura bat ere, supermerkatu aldeko atearen atzean. Lanak borobiltzeko, bi argi poste berri ipiniko dituzte,

ordutegia programatzeko aukerarekin, eta futboleko nahiz saskibaloian jokatzeko eremuak margotuko dituzte. Lanek 47.000 euroko aurrekontua dute.

Gazteen sormena sustatzeko diru laguntza deialdia

Herriko irabazi asmorik gabeko gazte taldeek aurten garatuko dituzten jarduerak eta egitarauak diruz laguntzeko bigarren deialdia egin du udaleko Gazteria sailak. Apirilean egindako lehenengo deialdian 6.800 euro banatu ziren (*Dwingi Dwingi* taldearen laburmetraia, *Algaraz* taldearen DVDa eta *Txantxiki* elkartearen ekintzak) eta 8.184,5€ geratu ziren eman gabe. Hiru lerro izan ohi ditu deialdiak: kultur sormena eta hedapena; urteko programaketa; eta elkarten sustapena eta ez-ohiko jarduerak. Azaroaren 10era arteko epea dago eskaerak aurkezteko.

2020ko udal aurrekontuetarako ekarpenak egiteko deia

Datorren urteko aurrekontuak prestatzen ari dira udal taldeak eta, ildo horretan, herritarren ekarpenak jasotzeko bideak zabalik dituela adierazi du EAJK. Batzokiko buzoian, *prvonati.partaidetza@gmail.com* helbidean edo 688602100 *whatsapp* zenbakian egin daitezke ekarpenak.

Bestalde, jeltzaleek kezka adierazi dute, iazko Partaidetzako Aurrekontuetan herritarrek aukeratu eta 2019ko aurrekontuetan txeritatutako proposamen gehienak ez direlako burutuko; hala nola: San Pedro-Madalenan eta Olabarrieta-Aseztion komun publikoak jartzea; Ugarkaldeko haurren jolas parkea estaltzea, edota bizikletentzako aparkaleku estaliak egokitzea.

caravanas  oñate



• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Otdai zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Otdai zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

Odol ateraldiak Enpresagintza fakultatean egingo dira berriz ere azarotik aurrera

» Azaroaren 15eko ateraldia bertan egingo da

Maiatzaz geroztik Bidebarrieta kaleko Euskaldun Berria gelan egin izan dira odol ateraldiak, baina hilabete honetatik aurrera, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultatean egingo dira berriz ere.

Enpresagintza fakultatean egin behar izan dituzten obrak amaitu ondoren, bertako gela batzuk erabiltzeko aukera eskaini diote Oñatiko Odol Emaileen Elkarteari, eta Enpresagintza fakultateak eskaintako kokalekua eta gelak aukerakoak direla ikusita, bertara aldatzea erabaki du odol emaleen elkarteak. Hilabete honetako ateraldia (azaroaren 15ean) kokaleku berrian egingo da.

Odol emaleen elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Oñatiko udalari, lokal beharreen egon diren hilabete hauetan emandako laguntzagatik, eta eskerrak Enpresagintza fakultateari, odol ateraldiak berriro ere beraien etxean egiteko aukera ematezagatik.

ODOL EMAILEAK BEHAR DIRA

Urriaren 20an egin zen Eibarren Deba Arroko odol emaleen urteroko topaketa, eta bertan 25 oñatiarrek jaso zuten elkartearen errekonozimendua, hainbat urtetan erakutsitako konpromisoagatik. Horietako hiruk emaile bikainaren diploma jaso dute, odola 75 aldiz eman dutelako; beste zortzik urrezko domina, 50 emanalditara (gizonak) edo 40ra (emakumeak) iritsi direlako, eta gainerako hamahiruek zilarrezkoa, odola 25 aldiz eman dutelako.

Tamalez, baina, oso konstanteak izan diren odol emaileak jubilatu doaz, eta azken urteetan behera egiten ari da Oñatin ematen den odol kopuruak. Horregatik, herriko odol emaleen elkarteak dei egiten die herritarrei, bereziki gazteei, odol emaile egin daitezela. "Tamalez, odolak oraindik ez dauka ordezkorik, eta norbaitek eman beharra dauka odola, behar handia egoten baita, istripuak direla, gaixotasunak direla, ebakuntzak direla...". Gogoratu, odol emaile izateko nahikoa dela 18 urte beteta edukitzea eta osasuntsu egotea.



Elkartearen aitortza jaso duten Oñatiko odol emailetako batzuk

Lehen sorospenetan trebatzeko ikastaroa, Gurutze Gorriarekin

Azaroaren 11tik 27ra izango da ikastaroa, 48 ordukoa, astelehenerik ostiralera, arratsaldean (16:00-20:00) Arrasateko Etxaluzen. Lehen sorospeneko teknikak eta desfibrilagailu semi-automatikoa erabiltzen irakatsiko da bertan. Ikastaroa gazteleraz izango da. Prezioa, 75€ (ikasleak, erretiratuak eta langabetuak 50€). Informazio gehiago eta izen-ematea: 943765576 / altodeba@cuzroja.eus

Errigora kanpaina abian da, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko

'Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka' lelopean abian da **Errigora** kanpainaren 7. edizioa. Urtero bezala, Nafarroa hegoaldeko



ekoizleen produktuz osatutako saskiak (50€, 60€ edo 70€-koak) eskuratu ahal izango ditugu, eta saski bakoitzaren balioaren %25 bideratuko da Nafarroa hegoaldean ikastolak, Sortzen eta AEKren ekimenak laguntzera. Iaz 13.000 saski banatu ziren Euskal Herri osora, eta orain arteko sei edizioetako ekarpenak batuz, 1.000.000€ bideratu dira Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara. www.errigora.eus webgunean egin daiteke saskien eskaera.

33. Jardunaldi Gastronomikoak, abenduaren 8ra arte

Debagoieneko 33. Gastronomía Jardunaldiak abian dira. Abenduaren 8ra arte, bakailaoa, onddoak, sagarra eta ezta oinarri duten menu bereziak dastatzeko aukera egongo da eskualdeko bost jatetxetan: **Goiko Benta** (Oñati), **Lasa** (Bergara) **Hilarion** eta **Santa Ana** (Arrasate), eta **Maialde** (Elgeta). Ikusi menuak eta prezioak QR kodean.



Yoga ikastaroa pentsiodunentzat

Oñatiko Yoga Eskolak pentsionistek zuzendutako ikastaroa emango du urtarriletik aurrera, kuota murriztuekin. Bien bitartean, urtea amaitu arte, ostiraletan (10:45-12:00) ate irekien saioak egingo dituzte, pentsionistek Yoga Eskola (Bidebarrieta 28) ezagutu ahal izan dezaten. Informazioa: 661345991 (Inma).

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi zaitugunez, **Arrasaten bertan ere artatuko zaitu** Zuatzu klinikako espezialista-taldeak, 20 urtetik gorako esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Nafarroa eguneratu

Iñaki Idigoras Igartua

Arreta eskaini diet herri egun eta errosarixotarako hiru bat lekutan zintzilikatuta ikusi ditudan ikurrei. Poztu nau ikurriña eta presoak herriratzea aldarrikatzen duenarekin batera, nafarra ikusteak. Zenbaitetan eskatzen dugun ikurriña CFNko udaletxetan, eta zein gutxi nafarra CAVen! Zatikata gaude administratiboki, eta mentalki ere, memoria urriarekin.

Baina, Nafarra gurean ikusteak kontzientzia bizi-tzen ari denaren seinaleztat hartzen dut nik. Borrolakariengertuko zigorra arintzea du aldarrikapen 'izara'k. Ikurriñak berriz, hiltzearen euskal nortasuna hauspotu zuen garaia dakar gogora, Aranak gidatutako indar berritze bat. Gogo bat, garena duintasunez izateko, menpekotasunetik askatzeko. Kulturaliki, politikoki eta militarki mugitu zuen giroa: euskal berpizkundea.

Fruitu ugari emandako loraldia, hamarkada batzuz. Ezin, baina, amestutako heldutasunik erdietsi! Harenak egin du. Berrito gainbeheran goazelakoan nago. Barrakeroen eremuan, autotxoke pistaren frisoan, ikurriñaz margotuta zegoen CAVeko mapa. Hori baita CAVeko gobernuaren -eta herritarronmezua: gu gara Euskadi, zuek nafar-espainol eta haiek iparraldeko-frantsez.

Ez gara hiruak bat, ez gara zazpiak bat. Zazpitan zatikatutako bat gara. Gaitz honen aurrean daukagun errealtate

historikorik probetxuzkoena Nafarroako Erreinuarena da. Mende batzuk badira, bai: zortzi gurean. Baina ahaztezinak beharko dute izan, gure izaerarekin globalizatu nahi badugu. Erro sakonik gabe, haize arrotzek nahieran erabiliko gaituzte, morroi, beraientzako fruituak batzen.

Horregatik poztu nau bandera nafarra gure kaleetan ikusteak. Bat eta Nor izan gineneko garaiak -orduan modernoak- adierazten dituelako. Erromatarren inperio ostean, eta espainar eta frantsesaren aurretik, burujabe izan ginen europako estatua-rena, erreinuarena. Euskaldunok geure osotasunean bildu ginena, eta behetik gorako botere legegilea (foruak) izan genuena, egun Zuzenbide Piriniarra bezala ezagutzen dugun hori.

Nafarra da euskaldunon gogoia osotasunean gorputzu duen izatea. Eguneratu daigun.

Oñatiko Ganbara Abesbatza: 25 urte

Amaia Erostarbe Letamendi
EAJren udal-taldea

Azaroan, 25 urte beteko dira Oñatiko Ganbara Abesbatza sortu zenetik (OGA); hain zuzen, 1994an, 12 gazterekin eta Gorka Cueva piano-jolea buru zuela. Harrezkero, kide gehiago batu zaio abesbatzari, eta ibilbide luzea eta emankorra egin du Esteban Urzelai-rekin lehenengo (1996-2009), eta, azken 10

urteetan, Aitor Biain Bidarterekin. Urte askotarako talde osoari!

Urte hauetan guztietan, Ganbara abesbatzak hainbat eta hainbat obra abestu ditu, garai eta mota askotakoak: musika espirituala, herrikoia, gospela, polifonia... Bereziki, ahalegina egin du euskal musika herrikoia eta egungo musika-egileen lanak kantatzeko. Ez dira, bestalde, gutxi eskuratu dituen sariak han-hemen, bai polifonian, bai folklorean, bai Errenazimendu modalitatean, bai musika garaikidean...

Urteurrena ospatzear (azaroaren 14a), Argentinako Euskal Aste Nazionalean abestuko dute azaroaren 7an eta 8an, Bahia Blancan. Han, Oñati eta Oñatiko Ganbara Abesbatza, eta Buenos Aires eta hango Euskal Etxeko euskaldunak elkartuko dira, elkarren berri izango dute eta abestuko dute. Ederra izango da! Bejondeizula!...



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Doha

📷 Berezia izan da aurtengo atletismoko munduko txapelketa. Arrazoi askorengatik. Ekialde Hurbileko hiri batean jokatu zen aurreneko aldia izan da, eta errepideko probak (maratoia eta ibilketa) gabaz jokatu behar izan dira, temperatura altuetatik babesteko. Baina Doha-ko (Catar) Jalifa estadioan jokatu-tako probek marka eta irudi ederrak utzi dizkigu, Felix Sanchezen argazkia bezalakoa.



FÉLIX SÁNCHEZ

Plater tiraketako 712 euroak ASPANOGI elkartearentzat

Urtero lez, herri mailako plater tiraketa jokatu zen irailaren 29an, Txopekuako tiro zelaietan, Pago Uso elkarteak antolatuta. Denera 47 lagunek parte hartu zuten eta Jesus Inzak irabazi zuen, 15 plateretik 14 jota. Ondoren, 12rekin berdinduta gelditu ziren Gotzon Aranguren, Aitor Zugasti, Aitor Arabaolaza eta Jose Txintxurreta.



Egun horretako irabaziak (712€) ASPANOGIra (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte) bideratzea erabaki du Pago Uso elkarteko Tiro Sailak.



Elena Murgiondok 100 urte bete ditu

Azaroaren 3an ospatu zuen ehungarren urtebetetzea Elena Murgiondo Galdosek. Garagaltzako Lamiategi baserrian sortua, Korueta auzoko (Aretxabaleta) Juan Errastirekin ezkondu zen eta 6 seme-alaba izan zituzten. Mari Carmen alabarekin bizi da Elena, eta ilusio handiz ospatu zuen mendeurrena, iloba, biloba eta gainerako senideez inguratuta, berak nahi bezala. Susana Altuna udaleko gizarte zerbitzuetako buruak oroigarria eta lore sorta oparitu zizkion herriaren izenean, ohiturari jarraituz.

'The Work', zoriontsu izateko metodoaren aurkezpen hitzaldia

Pentsamenduak ezagutuz eta modu kontzientean landuz zoriontsu izateko metodoa da *The Work*. Erraza, eraginkorra eta ikasteko xamurra, egunerokotasunean erabil daitekeena. Isabel Morenok (*The Work* coach-a) aurkeztuko du metodoa azaroaren 8an, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta 18) 18:30etan. Dohainik.

Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

carpintería
GARIBAI
aroztegia
Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Gure ekintzen berri emango duen atala...

HERRIKO GAZTEEN BURUAN BUELTAKA

Gaztelekuan gazteen iritzi eta pentsamenduak ezagutzeko, esperimentu moduko bat egin genuen aste batean zehar bizitzan eta inguruan ditugun hainbat gaien buruz.. Galdetegi bat prestatu eta banaka, 11-14 urte bitarteko gazteei, neska zein mutil, 11 galdera egin genizkien. Hemen jasotakoaren lagin bat:

1. Amets bat.

2. Bidaian joango zinakeen leku bat.

3. Zeri diozu beldurra?

4. Euskal Herri Independentea ala Frantzia eta Espainiaren menpe?

5. Gorroto duzun zerbait.

6. Miresten duzun pertsona bat.

7. Oñatiren gauzarik txarrenea?

8. Oñatiren gauzarik onena?

9. Zerk pozten zaitu?

1. Matematikari izatea, kirolari profesionala izatea (9), hegan egitea, fisioterapeuta izatea, bizitza ondo joatea, lana edukitzea, aberatsa izatea, New Yorkera joatea, munduari buelta (3), gizarteari lagunduko dion zerbait sortzea (3), zaldia edukitzea, menditik bizitzea, eskubaloiko Espainiako selekzioan egotea, Mont Blanc igotzea.

2. Taj Mahal, Australia (2), Tailandia, Norvegia (5), Finlandia, Missouri, Amsterdam, Maldivak, Zeelanda Berria (3), Peru, Sardinia (3), Los Angeles, Hawai, Japon, Andaluzia, Suitza, Brasil.

3. Nere aman haserreari, lapurrei, heriotzari (4), maite dudan pertsona galtzeari (3), bakardadeari (2), iluntasunari (3), armiarmeri (2), irakasle bati, euskara galtzeari, Port Aventura atrakzio bati, behiei, itsu geratzeari, erleei (2), globoei, alturei, marrazoei, sugeei.

4. Independentea (20), ez independentea, axola ez (4), herritarren erabakia izan behar da.

5. Faltsukeria, lagun taldeetan botere harremanak egotea (2), iritzi propiorik ez izatea, goiz jaikitzea, espinakak, etxeko lanak, klasean hankak mahai gainean izatea, igerilekura joatea, gezurrak (3), komunera joatea, altu berba egitea, faxistak, egoismoa, eskolara joatea (2), lingua castellana, injustizia, goizetan norbaitek hitz egitea, gauzak apurtzea, klima aldaketa, haserreak, zaborra gaizki kudeatzea, jendea pikatzea.

6. Cole Sprouse, Mikel Oiarzabal, ama (3), Antoine Griezman, Aritz Aduriz, lagunak, Elene Guridi, Eli Pinedo, Tini Stoessel, Espainiaren aurka egin zuten euskaldunak, iparraldeko euskaldunak, Amelia Earhart, arreba, osaba, Martin Odegaard, inor, aita, Natalia Rodriguez, Sheila Fritz, aitona, Novak Djokovic, Haritz Egea, Nora Mork, Kilian Jornet.

7. Zentro komertzial falta, Azkoagainen egoera, denda txikien itxiera, hondartza falta, herrian WIFI eza, garraioen komunikazioa, Guardia Civilaren kuartela, eguraldia (3), aterpe gutxi (2), herribusa ez da auzobusa, euskara ez egotea beti presente, lurreko zaborra (2), kaleko zabor ontziak beteta (5), espaloien egoera (2), jende gehiegi bizi da, kotilleoa (2).

8. Segurtasuna (2), Gaztelekua, Usako (5), ingurunea (5), denak ezagutzen gara (4), herri euskalduna (2), lasaitasuna, Araotz, kiroldegia (2), lagunak, tenis pista, euskararen erabilera.

9. Lagunek (9), Errealaren garaipenak (2), ingurukoei ondo joateak (2), oporrak, gustuko gauzak egiteak, futboleko jokatzekoak, familiak (3), Oñatin euskaraz hitz egiteak, pertsona alaiak, Sendavivara joatea, aisialdiak, partiduak irabazteak, zaldiekin egoteak, eskubaloian jokatzekoak.

AGENDA: 19.11.16 Kuboko frontenis txapelketa (17:00). Aurrez izena eman behar da. | 19.11.17 Sarah Vistaren kontzertua gaztelekuan (12:30). Aurrezalmenta: 5€. | 19.11.23 Motxila 21 taldearen kontzertua gaztelekuan (18:30). | 19.11.30 Gaztelekuko XXV. Xake txapelketa (9:00). Izen ematea, azaroak 28 arte. | 19.11.30 Lion's Law, Yugarlar eta Tilikum taldeen kontzertua gaztelekuan (22:00). Aurrezalmenta: 8€. Takilan: 10€.

Arazoak, erronkak eta ekonomilariak



Egunotan komunikabi-
de-etan entzuten da
mendebaldeko ekono-
miak berriro atzeraldian, gutxie-
nez, sartzeko zorian daudela,
aurreko krisialditik konpondu ga-
beko zenbait arazok irautearen
ondorioz, potentzia ekono-
miaren arteko merkataritza-ga-
tazkek direla eta, bereziki AEBk
eta Txinaren artekoak, edo Erre-
suma Batua Europar Batasunetik
irtetearen ondorioz. Eraginak
garrantzitsuak izan daitezke,
sektore ekonomiko batzuent-
zat bereziki, eta neurri batean
ekonomia osora zabaldu ere.
Egoera honi aurre egiteko, eko-
nomialariek zenbait moneta po-



Luis Guridi

litika, zerga politika edo kanpo
merkataritza politika neurri pro-
posatzen dute.

Krisi mota honen horizontea
epe laburra edota ertaina da.
Baina haratago, edo ez hain-
beste, erronka handiak ager-
tzen dira, ez bakarrik euskal
gizartearentzat, baita Europa
osoarentzat ere, eta, ziurre-
nik, harantzago: a) **ingurumen
iraunkortasuna**, horren menpe
baitago planeta osoaren etor-
kizuna; b) **bizitzaren zaintza**,
genero ekitatearen bidean eko-
nomia osoaren berrantolaketa
eskatuko duelako; c) gero eta
handiagoa den **desberdinta-
suna**, giza eskubideen urraketa
dakarelako eta gizarte-gatazken
iturria delako; d) enplegua eta
bizimodu osoa berkonfiguratu-
ko duen **aldaketa teknologikoa**;
eta e) **aldaketa demografikoa**
eta migrazio-prozesuak, gure
gizarteetako bizikidetzaren tentsio-
natu eta zaildu dezaketelako.

Sarritan pentsatzen da eko-
nomialariak izan behar direla
irtenbideak aurkitu behar dituz-
tenak. Zoritxarrez, harrokeria
puntu batekin, beraien gabeziak
konturatu gabe, ekonomialari
askok uste dute horrela dela,
beraiek bakarrik dutela behar
den ahalmena arazoak ulertzeko
eta beraiek direla errezeta eta
proposamenak egiteko autorita-
tea duten bakarrak.

Oker daude, hain konplexua
den errealitatea aztertzeke eta
ulertzeko, diziplina anitzeko
ekarpenak behar dira -gizarte
zientziak, natur zientziak, eta te-
knologiari lotutakoak-, eta elkar-
lanean aritu behar dira. Etikarik
gabeko eredu makroekonomi-
koak, teknologiak edo algoritmo
matematikoak ez dira gai izango
erronkei aurre egiteko.

Gogoratzen



Azkenaldian modan
dago *vintage* izaera.
Arropetan, musikan
edo artean, lehengo gauzak
birmoldatu, eguneratu eta
hauek komertzializatzen hasi
gara. Nostalgia puntu horrek,
agian, haurtzarora edo, bizi
izan ez dugun momentu batera
eramaten gaitu eta, jakina da
ezezaguna, edo nostalgikoa
denak, erakarri egiten gaituela.

80. hamarkadan oinarritutako
moda, 60.eko diseinuak...
gizakiari beti gustatu izan zaio
urrun sentitzen duen hura



Amaia Aranzeta

eskuartean izatea, sentitzea
eta dastatzea. Ikusi ditut berriki,
txikia nintzenean erosten nituen
gozokiak dendetako apaletan;
jada ahaztuak genituen marrazki-
bizidun, film eta telesailak *Netflix*
eta antzerako plataformetan;
Remembering the 90s edo, *Yo fui
a EGB* bezalako amuak sarean,
nostalgia apur hori sentitzen
dugunon artean haurtzaroko
oroitzapenak berriro gogora
ekarriz.

Baina, hau guztiaren arrazoia
zein ote da? Zergatik ote
dugu lehengo aldarrikatzeko
hainbesteko gogoa? Egia da
urteak aurrera doazen heinean,
haurtzarora bueltatzeak emozio
edo sentsazio uhin ezberdinak
sortarazten dizkigula, agian,
behin izan ginena eta gehiago
izango ez garena gogora
ekartzean.

Beste alde batetik, egia ere
bada gaur egungo gizarteak,
gauza berriak sortzeko gaitasuna
galdu duela eta errazagoa dela
betiere, lehengoa kopia, zerbait
aldatu eta nostalgiaz amorrutako
direnei saltzea; eta produktu
horiek egiten dituzten konpainia,
enpresa, edo norbanakoek
badakite, nostalgia hori euren
onurarako ustiatzen.

Eta badakit, ezingo garela
inoiz atzera bueltatu; denboraren
metafisikan salto egin eta
haur bihurtu. Horregatik, hobe
litzaguke lehenaldira jalgi
baino eta nostalgikoak garela
aldarrikatu, ikasi duguna
gogoratu aurrera begiratu;
eta, etortzeke diren momentu
guztiekin gozatu.



Goixan, San Juan kaleko zerria; behian, Antzuelasena, Errekalde auzo barrenian.
(Fotografixak: udal artxibua)



Gerra ostian, pittinka-pittinka ekonomia martxan jarri eta gerratian txipitutako dana berreraiki biharra etorri zanian, jentiak esku-eskura eukan baliabide naturalera jo eben derrigorrian, hau da, gure basuetan hain ugarixa eta hurrekua zan materialera, egurretara; egogixa izatiaz gain, orduko premiña galantai erantzuteko, sasue hartako bittartekuakin –eskuko erremintak eta esku-lan ugarixa eta merkia–, jiraitteko modukua zalako. Horren guztiorren ondorioxoz, Oñatin, hamaika zerra eta arotzerixa lanian jardun euen, batzuren batzuk piñuaren gorakadiaren eragiñez sortuak. Egoeria normaldu ahala, fabrika barrixak eregittiarekin batera, lanpostu segurutxuaguak sortu ziranian, berriz, zerren premiña bajauaz fan zan, eta askok eta askok itxi zittuain euren atiak. Gaur egunian, orduko bakarra geraketan da, **Barrenzelairena**, Goribar auzuan dagueña.

BASOGINTZAIA

herriko zerrak eta arotzerixak (3)

◉ ERREPORTAJIA ◉
ROBERTO ALTUNA ERLE

Hona hemen, bada, orduko zerra eta arotzerixen zirrindaria ibarraren goixenetik hasitta:

Olabarrietan: **Zakariasena**, Zakarias Alustiza legazpiarrak gerra ostian erosittakua, alegia, Aiastui baserri aurrian, kamiño kontran eguena. Trenbidietarako trabiesak be egitten zittuan, haritzenak (inguruko basuetatik ekarritta); kaja-oholik-eta etzan egitten, dana egur haundixa: pago-tablia, ohol luzia —haritza eta paguarena—, eskuetan eta bizkarrian

ebaltekoso oso material astuna zana.

Erretxingua eta **Artxubikua**. Azkenengo honetan egitten zan dana salduta eguen; aillegau ezindda ibiltten ziran, domeketan be lana egin biharrian. Urterik onenak 1945etik 1970era bittartekuak izan ei ziran. Eratan, hamalau langille zerran eta beste horrenbeste mendi-lanetan euki zittuan. Erostonak Eibarko *Alfa* eta Elgoibarko *Singer* josteko makiña-fabrikak ziran, bestiak beste. Egurrezko enbalajia eskaketan euen, artian kartoia

eta plastikua sartu barik egozelako.

Egurra, herrikua eta kanpokua gastaitten euen: Ezkiotik, Soriatik eta Frantziatik be ekarritta. Brinkolaraiño trenian ekarri, han deskargau eta zerraraiño kamioetan karriaitten euen. Piñu maritimuagaz marketerixia -ate eta bentanen markuak- egitten zan, egur hori etzalako bihurketan. Aluminiua sartu zanian, ostera, zerria hilda geratu zan.

Olakuan, **Mugartzarena**. Hor hiru anaek, Danielek, Eugeniok eta Eliasek,



Fotog.: Arantxa Zelaiola

◀ Hemen dittugu 1959xan, **OKU** (*Organizaciones Korkostegi/Ugarte*) izena emun xakon belodromo oñatiar famaua Bartzelonako *Nou Camp*-era montaittera fan ziran herriko politikari, arotz eta teknikarixak:

Behetik gora eta ezkerretik hasitta, lehenengo illaran: Pedro Igartzabal, Pedro Arregi, Koixkargua; Zeferino Ugarte, Kanpiazelaikua; Jexus Zelaiola, 'Pintxe'; Felix Ugarte, Olabartako errotakua; Luis Igartua, Olabartako taberna zaharrekoa; eta Jose M^a Urzelai, Anduagakua.

Bigarren illaran: Bixente Ugarte, alkate zaharra; Deogracias Ugarte, Olabartako errotakua; Olabartako kamiñerua, Jose Luis Egaña, Garibaiko Paikokua, eta bere eskuman, Rufino Moiuva.

Hirugarren illaran: Reyes Korkostegi, orduko alkatea; Migel Elortza, arotz-nagusixa; kanpoko langillia, eta Bittor Axpe.

Eta laugarren illaran: Garañeiko Santamaria peritua, Bittor Altube, Falangeko gizona, Sebastian Farretxe, Juanjose Esnaola —Mendaroren seme zaharrena—, Olabartako Simonena, Esnaola —Mendaroren seme gaztiena—, eta Olabartako Felix Markuleta, Basazabalgua.



Fotog.: F. Altuna

▲ **Goixan**, Barrenzelaiko zerrako Eli, alabia, Jabier Olalde, aitta eta Mikel, semia. Azpizan, Luis Abaunz, Felix Biain, Joxe Arrizabalaga eta Bittor Altube, herriko arotzak.

lana egitten euen; zerra haundixa zan, atzera-aurrera haundikua. Onduan presia edo andaparia ekuan, eta jentia kaletik faten zan hara baiñua hartzera.

Kalian: **Barrenzelairena** (Ituartetarrena), lehenengo Agirreko Loperen kalia eta gero Ibarra; **Txintxurretarena** ('*Diortsuena*' edo *Arantzazu* taberniaren beste aldia); **Bixente Korkostegirena** (arotzerixia, mueblerixia eta ebanisterixia) bi lokal ekuana, bata Kale Barrixan eta bestia Atzeko kalia; Santa Mariñako **Aranena** etxekua (zerria eta arotzerixia); Mendiko kalia, **Santa Kataliñakuen zerra txikiña**, suegurra egin eta partitten ibiltten zana, negoziua itxi ondoren ULMAk bere lehenengo lokala izan eben lekuan; **Txomin Potteoren zerria**, Uraingo torrian, Garañeiko ekonomatua egon zan lekuan; eta arotzerixia, berriz, Kale Barrixan, gaur egun *Garate* botikia dague lekuan; **San Juan kaleko zerria**, sorreran San Migel errota izan zan lekuan, eta gaur egun Turismo bulegua dague; **Atzeko kaleko Jesus Zelaiaren** arotzerixia, Juanitosiaren dendia baiño goratxuago; **Anduagatarrena** (Lekunbarrin), zerria eta arotzerixia; **Akeleneko etxe ondokua** —Xabalorena lehenengo eta Antzuelas

Goittikuarena (Arriaran abizenekua) eta Mendarorena gero—, Errekalde auzo barrenian; **Galdosen zerria**, Bakardadeko Ama kalia lehenengo (gaur egun *Bizipoz* kafetegixa dague lekuan, bertan *OKU* izena emun xakon belodromo oñatiar famaua egin zan) eta 1941etik aurrera Ibarra, Cegasa enpresiak bereganatu arte; **Agustiñuen** eliza osteko arotzerixia, (Bixente Ugarte eta Bittorin Zelaiarena). **Ortizena** (arotzerixia), Leandro Ortiz de Zaratena, hau be ebanista fiña, Aita Madina kalia, gaur egun *Kale Zaharra* alkatia dague lekuan; **Kastillona** (arotzerixia), bi bajutan, *Castillo* tabernan bata eta *Sarrixena* izeneko etxe azpizan bestia, bixak Kale Zaharrian.

Berezaon: **Egur-Lan** eta **Maiña Anaia** arotzerixak.

Lezesarrin: **Edor Moiuaren** ondorenguen arotzerixia.

Torreazon: **Elazarreko Martzeliño Elortzaren zerrerixia**, *Aldai* izeneko paraje parian.

Garibain: **Garibarrengo zerria**, Garibarrena eta Migelena, baserri honen onduan, 1960ko hamarkadan martxan ibillitakua, gaur egun *Zumadi* mueble-dendia dague etxian. Albuana, **Garibai** arotzerixia 1977 ezkerro, Angel Elortza etxegillari

erosittako taillerrian.

Zubillagan: bost zerra egon ziran: **Altunanekea**, euren fabrikarako enbalajia egitten ebena; **Narbaixena**, Gillermo Guridirena; **Emilio Loibiderena** Arretxe Haundikuan, denpora gutxian; **Kortazar**, **Urtzaila**, **Eskolatxo** eta **Alkortarena**, ez denpora askuan, gero *Enara* kooperatibia hasiko zan lekuan; eta, azkenik, **Igartuatarrena** edo zubi aurrekoa, lehenengo, Fanderixan, egur-biltegixa; gero, zubi aurrian, eta, azkenaldixan, Lezesarri auzuan, itxi zan arte.

Araotzen: **Uriartena**, Zubia (Zubitta) auzunaan.

Gerra osteko herriko zerrarik haundixenak **Galdosena** eta **Mugartzarena** izan ziran. Bestalde, kontuan hartzekua da, lehenagoko ola eta errota zaharretako ur-saltuak aprobetxauaz zerrak egin zirala zenbait lekutan, aittatutako Mugartzarenian eta San Juan kalekuan, esaterako.

1960xan, oster, Santxolopetegiko industrialdian **LANA** Kooperatibia sortu zanian, baillarako makiña bat baserritarrek dirua ifiñitta, zerra txiki horreik danak, neurri batian, desagertuaz fan ziran haundixorrekin konpetitirik ez eukaillako, batetik, eta lan egitteko eria eta bizimodua be aldatu ziralako, bestetik. ■

Mendi Astea

Udazkenarekin batera, Mendi Astea ere badator, Aloña Mendiko Mendi sailaren eskutik. Ondoko orrian ikus daitekeen moduan, lau emanaldi izango dira, zein baino zein interesgarriagoak, alpinismoaz, eskaladaz eta, oro har, mendizaletasunaz gozatzeko eta ikasteko.

Emanaldi horietako batean bi oñatiar izango dira protagonista. Ion Agirrek eta Iñaki Mendizabalek iazko udazkenean Ameriketako Estatu Batuetan egindako eskalada saioei buruzko bideoa aurkezteko dute.

Besteak beste, *Yosemite* bailarako (Kalifornia) *El Gran Capitán* (900 metro) eta *Half Dome* (700 metro) hormatzen ospetsuetan eta *Indian Creek* guneko (Utah) paretetan egindako igoera ikusgarriak eta bitzako esperientziak azalduko dituzte eskalatzaile oñatiarrek.

Emanaldiaren hasieran, Mendia eta Natura argazki lehiaketako sari banaketa egingo da.

Gogoratu, bestalde, 2020 urterako federatu kanpaina ere zabalik dagoela. Aloña Mendiko mendi sailak azpimarratzen du federatuta egotearen garrantzia, aktibitate eta irteeretan parte hartzeko.

Eskaladak Estatu Batuetan

Ion Agirre eta Iñaki Mendizabal oñatiarrek Yosemite (Kalifornia) eta Indian Creek gunean (Utah) egindako eskalada saioei buruzko ikus-entzunezkoa eskainiako dute azaroaren 15ean



2020rako MENDIKO FEDERATU KANPAINA

Aloña Mendiko Mendi sailak 2020rako federatu kanpaina zabaldu du. Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela, baldintza berberetan. Aldaketak egiteko edo federatu berriak tramitzatzeko aukera egongo da **azaroaren 19an** eta **20an** elkar-terean egoitzan (19:15-22:30). Internetez (alonamendi.mendi@gmail.com) egiteko aukera ere badago, **hilaren 21a** baino lehen (izen-abizenak, adina, helbidea, NAN zenbakia, kontu korrante zenbakia, telefonoa, e-posta, eta nahi den estaldura maila adieraziz). Ikusi prezioak <https://emf.eus> webgunean.

MENDI IRTEERA / AZAROAK 17

‘OÑATI MUGARRIZ MUGARRI (II): Oñati-Jentiletxe-Gorostiaga-Udana-Arratola-Barrendiola’ (19km/1100m+/6 ordu inguru). Irteera, goizeko 8etan Foruen plazan. Izena emateko epea: azaroak 14, osteguna, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com (5€). Federatuta egon behar da. Urtarrilean hasitako mugarren ibilbideari jarraipena emango zaio, Jentiletxe eta Arratola gainaren artean dauden mugarrak ezagutzuz. Barrendiolako urtegiari amaituko da ibilaldia eta autobusez egingo da bueltako bidea.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheka • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

MENDI ASTEKO EGITARAUA

AZAROAK 12 / Kultur etxean, 19:00

IKUS-ENTZUNEZKOA

'Dragñag-Ri, arista sur-oste'



Mikel Zabalza, Alberto Fernandez, Joseba Larrañaga eta Iñaki Arakistainek iazko udazkenean Nepalgo Dragnag-Ri (6.801m) mendira egindako igoyerari buruzko emanaldia.

AZAROAK 13 / Kultur etxean, 19:00

IKUS-ENTZUNEZKOA

'El viaje'



Juanjo San Sebastian (Bilbo, 1955) alpinista eta idazleak bere ibilbidea eta bizi-esperientziak azalduko ditu. "Inportantea ez da zenbat mendi igo ditudan, ikasitako gauzak baizik" dio berak.

AZAROAK 14 / Kultur etxean, 20:00

FILM-DOKUMENTALA

'Free Solo'



2019ko dokumental onenaren **Oscar** sariaren irabazlea. Alex Honnold eskalatzailerak El Capitán-era (Kalifornia) sokarik gabe egindako iguera erakusten du.

AZAROAK 15 / Kultur etxean, 19:00

'Eskalada Estatu Batuetan'

Iñaki Mendizabal eta Jon Agirre oñatiarrek Yosemite (Kalifornia) eta Indian Creek-en (Utah) egindako eskaladak.

'MENDIA ETA NATURA' ARGAZKI LEHIAKETA

Aloña Mendiko Mendi sailak eman ditu ezagutzera XVI. Mendia eta Natura argazki lehiaketan saritutako lanak. 'A' sailean (Gizakia mendian) **Lander Marijuan** (Bilbo), **Yhabril Moro** (Gorliz) eta **Juan Ramón Llavorientzat** (Zumaia) izan dira lehen hiru sariak, hurrenez hurren. Oñati Saria hutsik geratu da. 'B' sailean (Mendi ingurunea) **Alberto Muñoz** (Oñati), **Ramiro Torrens** (Barcelona) eta **Eneko Ibarguengoitiak** (Gernika) jaso dituzte sariak. Oñati Saria **Unai Agirrentzat** izan da. Denera, 60 argazkilarik parte hartu dute, 11 herrialde ezberdinetakoak (Frantzia, Belgika, India, Indonesia, Brasil, Kanada...), eta 300dik gora argazki aurkeztu dira. **ERAKUSKETA** Argazkirik onenak kultur etxean egongo dira ikusgai **azaroaren 11tik 24ra**.



A saileko (Gizakia mendian) lehen saria, 'Humilde ante la inmensidad' (Lander Marijuan-Bilbo)



B saileko (Mendi ingurunea) Oñati saria. 'Islada' (Unai Agirre)



B saileko (Mendi ingurunea) lehen saria, 'Esnatzea' (Alberto Muñoz-Oñati)

Lau oñatiar Espainiako Orientazio txapelketan

Gipuzkoako Orientazio taldeko lau kidek (Eneritz eta Malen Osinaga, Malen Ugarte eta Idurre Caro) erkidegoen arteko Espainiako Orientazio txapelketan parte hartuko dute, Euskadiko selekzioa ordezkatzuz. Abenduaren 5etik 8ra jokatu da txapelketa, Extremadurako Ambros haranean. Osinaga ahizpak kadete mailan lehiatuko dira, eta infantil mailan Idurre eta Malen Ugarte. Azken aste hauetan asteburuko bi egonaldi egin dituzte Euskal selekzioarekin, taldekideak ezagutu eta teknika hobetzeko helburuarekin, eta ilusio handiz joango dira txapelketara.

Duela hiru urte eratu zen Oñatiko Orientazio Eskola, Asier Osinagaren eskutik, eta gaur egun 36 gazte ari dira bertan. Brujularen laguntzarekin, mapa batean adierazitako bi punturen arteko ibilbidea ahalik eta azkarren egitean datza orientazio kirola, bidean seinaleztutako kontrol puntuetatik pasatuz. Dohain fisikoak ez ezik, burua (konzentrazioa, erabakiak hartzea...) erabiltzea eskatzen duen kirola da.



Uxue Osés, txapeldun Egian

PILOTA. Uxue Osés Aloña Mendiko pilotariak Donostiako Egia auzoko Donosti Gain txapelketa irabazi du, binaka, Leire Garrairekin bikote osatuz. Finalean 22-20 nagusitu ziren Maite eta Olatz Ruiz de Larramendiren aurka.





'ODOLUSTEAK'


Dwingi Dwingi taldearen laburmetrai berria
azaroaren 22an eta 23an estreinatuko da

Azaroaren 22 eta 23an ikusi ahal izango dugu Dwingi Dwingi taldekoen **'Odolusteak'** filma. Oñatiko laburmetrai rallyan hainbat sari jaso ostean, proiektu handixeago batean murgiltzea erabaki zuten, aspaldiko ametsa egi bihurtuz, eta hainbat hilabeteko lanaren ostean, estreinaldirako prest daude.

Ez digute askorik aurreratu nahi izan pelikulari buruz; 40 minutu ingurukoa dela, eta Oñatiri buruzkoa. Esaldi enigmatiko bat baino ez ("Eta gauzak ez balira zuk beti pentsatu izan dozun moduan?") sinopsi eran, jakingurari eta ikusminari eutsi asmoz.

Idea, gidoia eta ekimena Dwingi Dwingi taldeko bost kideena (Ruben Idigoras, Ander Zelaia, Gorka Aranburu, Mikel Maiztegi eta Jon Ander Kortabarría) izan bada ere, beste hainbat herritarren laguntza ere izan dute arlo teknikoan nahiz artistikoan, eta eskerrak eman nahi dizkiete guztiei. Aitor Biain, Miel Guridi, Iñigo Idigoras, Eli Igartua, Beatriz Martinez de Albeniz, Aitor Perosterena eta Oier Yanizek osatu dute lantaldea.

Eskerrak baita ere, proiektu hau aurrera atera ahal izateko laguntza eman dieten Oñatiko udalari, Ulma Taldeari, Urbixako fondari eta Verkami plataforma bidez lagundu duten hainbat mezenasi, bereziki, Iñigo Idigoras, Michael Zelaia, Xabi Calvo eta Iñaki Bizarrori.



EMANALDIK ETA SARRERAK

- **AZAROAK 22, OSTIRALA, KULTUR ETXEAN, 19:30**
Verkami-ko mezenasendako bakarrik. Gonbidapenak jasoko dituzte.
- **AZAROAK 22, OSTIRALA, KULTUR ETXEAN, 20:30**
Emanaldi irekia. Dohainik, baina sarrera eskuratu behar da.
- **AZAROAK 23, LARUNBATA, KULTUR ETXEAN, 19:30**
Emanaldi irekia. Dohainik, baina sarrera eskuratu behar da.
- **AZAROAK 23, LARUNBATA, KULTUR ETXEAN, 20:30**
Emanaldi irekia. Dohainik, baina sarrera eskuratu behar da.

SARRERAK ESKURTZEKO

Emanaldi irekietarako sarrerak hiru leku hauetan eskuratu ahal izango dira (dohainik):

- PLAZAKO TXARTELDEGIAN
- www.oñati.eus WEBGUNEAN
- TXOKOLATEIXAN.

Sarrera guztiak aurrez agortzen ez badira, zine aretoko leihatilan eskuratu ahal izango dira emanaldia hasi aurretik



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserniko agia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



KONTZERTUA / azaroak 23, Gaztelekuan, 18:30

Down sindromedun rockeroak

Jose de Azpiazu musika eskolak antolatuta, **MOTXILA 21** taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu hilaren 23an. *Down* sindromea duten 12 gazte nafarrek eta 9 boluntariok osatzen dute taldea. 2005ean sortu zuten taldea, musikaren eta, bereziki, rockaren bidez, inklusioa eta harremanak lantzeko helburuarekin. Hamabost urteko ibilbide honetan 100dik gora kontzertu eman dituzte estatuko hiri ezberdinetan eta baita Londresen ere. 'Ez gara desberdinak' CD-DVDa grabatu zuten, eta El Drogas, Muguruza edo Fito bezalako musikariek kolaboratu izan dute *Motxila 21* taldearekin.



IKUS-ENTZUNEZKOA / azaroak 21, Euskaltegian, 18:00

Bizibidaiazteko irlak

Udal Euskaltegiaren eskutik, Mikel Bringas Diez donostiarraren 'Bizibidaiazteko irlak' ikus-entzunezkoaz gozatzeko aukera izango dugu hilaren 21ean. Familiarekin batera, munduko bost kontinenteetan bizikletaz egindako bidaietan ezagututako irlak -Islandia, Singapur, Kuba, Zelanda Berria, Gore (Senegal), Ko Phi Phi Don (Thailandia), Galapagoak...- ikusiko ditugu bideo (32') eder batean. Ondoren, bertaratzen direnen galderen txanda egongo da, eta, amaitzeko, argazki-geografia jolas dibertigarri bat. Irabazleak Mikelen bidaietako liburu bat jasoko du opari. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Haurrei eta gurasoei zuzendutako Irakurketa Kluba haur liburutegian

6 eta 8 urte arteko haurrei eta beraien guraso edo hezitzaileei zuzendutako IRAKURKETA KLUBA antolatu du udal liburutegiak, Galtzagorri elkartearekin elkarlanean.

Gurasoak eta haurrak elkarrekin liburutegira etortzea da ekimen honen helburua. Lur Korta ipuin kontalariaren laguntzarekin, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko goemendioak eta bestelako ariketak egingo dira, bi helbururekin: gozatzeko une bat sortzea, eta guraso-hezitzaileak ozenki irakurtzen trebatzea.

Hiru saio egingo dira: **azaroaren 19an eta abenduaren 3 eta 17an**, Haur Liburutegian, 17:30etan. Bertan parte hartu ahal izateko aurrez izena eman behar da haur liburutegian bertan.



IPUIN KONTAKETAK HAUR ETA HELDUENTZAT

Azaroaren 20an Coralia Rodriguez narratzaile kubatarra etorriko da udal liburutegira. Arratsaldeko 17:00etan haurrei (+7 urte) zuzendutako ipuin kontaketa eskainiko du, eta 19:00etan helduentzat ('Cosas de mujeres'), emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren harira.



IDAZKETA LANTEGIA. Aurten ere idazkera hobetzeko tailerra jarri da martxan udal liburutegian, Joxe Mari Iturralde idazleak gidatuta. Azaroaren 12an eta 26an izango dira hurrengo saioak (18:00etan). Informazioa eta izen-ematea, udal liburutegian.

'Una historia de la pelota' librua idatzi du Azpiazuk

Pilota jokuarekin lotuta, notario agiritan, udal artxiboetan eta auzi agiritan aurkitutako dokumentazioan oinarrituta, 'Una historia de la pelota. Del siglo XVI a la revolución de Chiquito de Eibar' liburu (Txertoa) argitaratu du Jose Antonio Azpiazu historialariak. Europa mailan zenbateraino zabaldua egon zen, apustuen inguruan sortutako auziak, edota *Chiquito de Eibar* bezalako pilotariek (historiako onena, egilearen ustez) Ameriketara egindako ibilbide oparoa jaso ditu, besteak beste, liburuan.



Musikaren Sari Nazionala Felix Ibarrondorentzat

Madrilgo Kultura Ministerioak urtero ematen duen Musikaren Sari Nazionala (30.000€) Felix Ibarrondo (Oñati, 1943) musikagile oñatiarrari ematea erabaki du aurten, musika elektroakustikoaren eta orkestralaren arloan egindako ekarpenagatik.



» **ESTEBAN URZELAI** / *Suhar* abesbatzako zuzendaria

«Ganbara utzi nuenetik izan dut proiektu pertsonal bat sortzeko gogoia»

- *Suhar* izeneko **gizon-korua** sortu du Esteban Urzelai.
- Oñatin abestuko dute **Musikegunak** jardunaldien baitan, azaroaren 17an.
- Abeslarien artean **Aitor Biain** eta **Gorka Aranburu** oñatiarrak daude.



«Oñatiarrak oso ohituta daude koruak entzutera, baina desberdina eta berezia izango da *Suhar* bezalako gizon-koru bat entzutea. Programa ederra prestatu dugu»

Suhar abesbatza sortu eta zuzentzeaz gain, Donostiako Orfeoiko zuzendariordea, eta Orfeoi Txiki eta Gazte abesbatzetako zuzendaria ere bada, besteak beste, Esteban Urzelai

Gizon-abesbatza sortu duzu. Zer dela eta?

Oñatiko Ganbara Abesbatza utzi nuenetik izan dut proiektu pertsonal bat sortzeko gogoia, eta erronka bezala, gizonzkoen koru bat sortzea pentsatu nuen.

Euskal Herrian tradizio handia izan dute gizonzkoen koruek (otxoteak, elizetako

abesbatzek...) baina azken urteotan gutxituz eta ia ia desagertuz doazela ikusita, hutsune hori betetzeko asmoz sortu dugu *Suhar*.

Euskal Herri osoko 24 bat abeslari batzeko aukera izan dut, eskarmentu handikoak guztiak ere, eta plazer handia da niretako halako talde batekin lan egin ahal izatea.

Tartean beste bi oñatiar ere ikusiko ditugu, ezta?

Bai. Abeslarien artean Aitor Biain eta Gorka Aranburu daude, eta baita Aitor Garitano bergararra ere, *Ganbara* eta *Hots* abesbatzetako kidea.

Gizonzkoen abesbatzen kontzeptua eraldatu egin nahi omen duzue.

Euskal Herrian gizonzkoen abesbatzen kontzeptua beti lotu izan da elizetako koruekin edo bestela otxoteekin, euskal folkloreakin lotuta beti ere. Baina Europan eta mundu mailan, oro har, badira kantatzeko beste modu bat duten gizon abesbatzak, eta guk ere bide hori jorratu nahi dugu. Euskal folklorea eta

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

bertako abestiak ere landuko ditugu aurrerago, baina erreperitorioa edo eskaintza zabaldu egin nahi dugu.

Suhar taldearen hirugarren kontzertua izango da?

Bai, maiatzean eman genuen estreinekoa, Donostian, gero Azkoitiko musikaldian parte hartu genuen, eta Oñatikoa hirugarrena izango da.

XIX. mendeko musikagile erromantikoen programa dakartzazue, ezta?

Bai, XIX. mendean asko konposatzen zen gizonen koruentzat, eta musika oso aberatsa eta ederra dago. Beraz, aukeraketa bat egin dugu *Mendelssohn*, *Schubert* eta *Bruckner*-en musika lanen artean, eta programa ederra osatu dugu.

Gainera, Amaia Zipitria (pianoa), Maite Arruabarrena (mezzosopranoa) eta Juan Ignacio Emme (biolontxeloa) bezalako musikari handien laguntza ere izango dugu, eta kontzertu ederra izango da.

Oñatiarrak oso ohituta daude koruak entzuten, baina uste dut berezia izango dela *Suhar* bezalako gizon-koru bat entzutea.

Ganbara Abesbatzak 25 urte betetzen ditu. Oroitzapen asko, pentsatzen dut.

Oso pozgarria da ikustea Ganbara hain sasoi onean iritsi dela 25. urteurrenera. Jaso dut azaroaren 30eko kontzertu berezian parte hartzeko gonbita, eta bertan izango naiz, ilusio eta gogo handiz. ■

Musikegunak Egitaraua

• Azaroak 3, igandea, 19:00, Santa Ana

Capilla Gregorianista Donosti Ereski

Pasa den igandean hasi ziren aurtengo Musikegunak, Donosti Ereskiren kontzertuarekin. 1697. urtean Bidaurretako Sor Maria Magdalenak, koruko bikariak, idatzitako kantoralak abestu zuten.

• Azaroak 10, igandea, 19:00, Santa Ana (6€)

Musbika Ensemble (Antonio Gaztañetaren bidaia)

Antonio Gaztañeta (1656-1728) itsasgizon mutrikuarrarekin batera bidaiatzeko aukera eskainiko digun emanaldia, testu dramatizatu eta musikaren bitartez. Europako eta Ameriketako hainbat herrialdeetara eramango gaitu eta bertako musika eta kulturak ezagutzeko aukera izango dugu. Marinela ausartaren paperean Josu Camara, *Kukubiltxo* antzerki konpainiaren sortzailea ariko da, eta bertatik bertara kontatuko dizkigu bere abentura eta gora-beherak. Estatu mailako hainbat orkestra eta talde profesionaletan diharduten euskal musikariek osatzen dute *Musbika Ensemble* taldea.



• Azaroak 17, igandea, 19:00, Santa Ana (6€)

Suhar, gizon-korua

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen *Suhar* abesbatzak alemaniar (*F. Mendelssohn*) eta austriar (*F. Schubert*, *A. Bruckner*) musikagile erromantikoen musika eskainiko digu, maitasuna eta gaua hizpide dituzten obrak. *Suhar* abesbatza 26 gizona osatzen dute, eta hauekin batera Amaia Zipitria (pianoa), Juan Ignacio Emme (biolontxeloa) eta Maite Arruabarrena (mezzosopranoa) ariko dira.



• Azaroak 24, igandea, 19:00, Santa Ana (6€)

Entre quatre, kitarra laukotea

Ibilaldi luze, oparo eta arrakastatsua du *Entre quatre* laukoteak (Carlos Cuanda, Carmen Cuello, Manuel Paz eta Jesús Prieto). 2009an Grammy Latinoen sarietarako hautagaien artean egon ziren. Lau gitarrentzako obra berrien sorkuntza inspiratu dute, eta musikagile handien 70 bat lan estreinatu. Berriki bira bat egin dute Txinan, lurraren lehen zirkumnabigazioa ospatzeko programaren baitan. Besteak beste, Aita F. Madina oñatiarrak (1905-1972) idatzitako lau obra (*Basque sonata*, *Cuarteto N°1*, *Danza Rapsódica* eta *Lullaby*) interpretatuko dituzte.



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERMOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Magia saioa

Asier Kidam magoaren saioa Txantxiki familia elkarteak antolatuta **Eltzian, 18:00**

**Pailazoak**

Tomaxen Abenturak ('Azken balea'), Urgain eskolak antolatuta **Zuazola institutuan, 16:30 eta 18:00**

MUSIKA**AZAROAK 8 / 18:00****ALOÑA ETA ANAI ARTE ABESBATZAK**

Oñatiko Pake Lekuko eta Mutrikuko erretiratuen abesbatzen kontzertua. Sarrera doan **Santa Anan**.

AZAROAK 8 / 22:00**SHARON STONER + BROKEN LEGACY**

Oñatiko rock taldeek disko berriak aurkeztuko ditzute. Sarrera, 5€ **Gaztetxean**.

AZAROAK 10 / 19:30**THE BRONTËS**

Gasteizko pop-rock taldeak bere azken lana aurkeztuko du **Itturri tabernan**.

AZAROAK 15 / 21:00**CRIMINAL REMAINS + NO LIMITS**

Gatzaga-Aretxabaleta eta Bergarako punk-rock taldeak **Pako tabernan**.

AZAROAK 17 / 12:30**SARAH VISTA**

Country abeslari britaniarra. Sarrera:5€ **Gaztelekuan**.

AZAROAK 23 / 18:30**MOTXILA 21**

Down sindromea duten gazte nafarren rock taldea **Gaztelekuan**.

AGENDA**ZALDI URDINA**

Artedrama, Axut! eta Dejabu taldeen eskutik. Unai Iturriaga eta Igor Elortzak idatzia. Drogak, heriotza, esku beltzak...

ANTZERKIA

Santa Anan (22:30). Sarrera: 10€

AZAROAK 24 / 12:45**MUSIKA BANDA**

Santa Zezilia eguneko kontzertua **Santa Anan**.

ABENDUAK 1 / 19:30**MURGI**

Donibane Lohitzuneko (Lapurdi) folk-pop-rock taldea **Itturri tabernan**.

ANTZERKIA**AZAROAK 13 / 17:30****PAKE LEKUKO ANTZERKI TALDEA**

Remendando males de amores lan berria aurkeztuko du. Pake Lekuko bazkidentzat. **Santa Anan**.

AZAROAK 15 / 22:30**'ZALDI URDINA'**

Artedrama eta Dejabu taldeen eskutik. **Santa Anan**.

IKUSKIZUNAK**AZAROAK 9 / 18:00****MAGIA IKUSKIZUNA**

Iosu Zubia 'Potx' magoaren saioa. Sarrera dohainik. **Pake Lekun**.

AZAROAK 17 / 18:00**MAGIA IKUSKIZUNA**

Asier Kidam magoaren ikuskizuna familia osoarentzat. **Eltzian**.

AZAROAK 23/(16:30/18:00)**TOMAXEN ABENTURAK PAILAZO IKUSKIZUNA**

Urgain eskolako guraso elkarteak antolatuta, 'Azken balea' ikuskizuna (umorea, magia, jolasak, kankak...), 4 urtetik gorakoentzat. Bi emanaldi: 16:30 eta 18:00. Sarre-rak (4,5€) Errekalde Herri Eskolan, Mizken, Kikun. Txokolateixan eta Candeluka dendetan. (2 urte-tik beherakoentzat doan, baina sarrera eskuratu behar dute. **R. M. Zuazola** institutuko antzokian.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**AZAROAK 21 / 18:00****BIZI-BIDAIATZEKO IRLAK**

Bizikletaz egindako bidaien inguruko emanaldia. **Udal Euskaltegian**

HITZALDIAK**AZAROAK 19 / 17:30****HAUREN MOTIBAZIOA**

Motibazioa (0-16 urte): Zergatik da garrantzitsua? Nola motibatu haurrak? Motibazioa ikasketetan. Tresna praktikoak. Hizlaria: Mireia Centeno (Haur psikologian espezializatua) Txantxiki Familia elkarteak antolatuta. **Kultur etxeko zine aretoan**



Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Ilgogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



T. 627 818 247

AZAROAK 29 / 19:00

'EL SENTIDO DE LA VIDA'

Oñatiko Yoga Eskolak antolatuta. Hizlaria: Javier Azipiri 'Kalki'. Sarrera doan. **Kultur etxean**

IPIIN KONTAKETAK

AZAROAK 28 / 18:00

OSTEGUN KONTALARIAK

6-9 urteko haurrentzat, Ane Gebararen eskutik. Gonbidapenak, hilaren 18tik aurrera.

Haur liburutegian

MIKOPOTEOA

AZAROAK 16 / 18:00

IX. MIKO-POTEOA

Arantzazuko Parketxeak antolatuta. Raúl Fraile adituaren hitzaldia ('Magia mikologikoa: perretxikoen inguruko gauza harrigarriak'), Gandiaga topagunean eta ondoren miko-poteoa Arantzazuko ostatueta. **Arantzazun**

ERAKUSKETAK

AZAROAK 24/ 10:30

GAZTAGINTZAREN SEKRETUAK

Gomiztegin, Arantzazuko Parketxeak antolatuta. Instalazioetara bisita, gazta nola egiten den ikusi, artzain txakurren erakustaldea eta gazta dastaketa. Prezioa, 10€ (haurrak 5€). **Gomiztegin.**

ABENDUAREN 15era ARTE OTEIZAREN ESTATUARIA

Orioko artistak Arantzazun egin zuen esku-hartzeari buruzkoa. **Gandiagan.**



Hileko gomendioa

Gogoeta egitera gonbidatzen duen liburua. Igelak eta saguak modu errazean hitz egiten dute sakonak edo arinak izan daitezkeen gaietaz. Kazuo Iwamura, idazlea, Japoniako haur literatura egilerik ospetsuenetako bat da. Liburu ilustratuen Kodansha sari ospetsua jaso zuen.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorenzo 3 ☎ 943 78 21 16

Azaroak 11, 12, 20, 21, 29 eta 30. Abenduak 1.

GARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Azaroak 13, 14, 22, 23 eta 24. Abenduak 2 eta 3.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Azaroak 7, 15, 16, 17, 25 eta 26. Abenduak 4 eta 5.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Azaroak 8, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28. Abenduak 6, 7 eta 8.

ZINEA



Azaroak 7-11

ZINE KLUBA:

El cuento de las comadreja

NAGUSIAK:

Downton Abbey

GAZTETXOAK:

Misión Katmandú

Azaroak 14-18

ZINE KLUBA:

Free Solo

NAGUSIAK:

Joker

GAZTETXOAK:

Playmobil (Euskaraz)

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusiak: Ostirala eta larunbata (22:30)

Igandea (19:30 eta 22:30)

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Azaroak 21-25

ZINE KLUBA:

El hotel a orillas del río

NAGUSIAK:

El silencio de la ciudad blanca

GAZTETXOAK:

Abominable

Aza. 22 - Abend. 2

ZINE KLUBA:

Génesis

NAGUSIAK:

Secretos de estado

GAZTETXOAK:

Asto erregea



MERKATU TXIKIA

ONATIKO EMAKUMEA etxe partikularretan orduka lana egiteko prest: garbiketasunak, erosketak, plantxa, adinekoei konpañia.... 688 603 052

ETXEBIZITZA BILA Etxebizitza edo apartamentu bila nabil alokatzeko. Deitu: 688 603 052.

ETXEBIZITZA ERRENTAN HARTU

Oñatiko bikote gaztea, etxebizitza bila errentan hartzeko. Mesedez deitu 678 003 706 edo 671 242 721 zenbakira.

LOKALAK EDO GELAK ALOKAGA!

Klaseak emateko edo bulego gisa erabiltzeko lokalak edo gelak alokatzen dira. Kale Zaharrea. 652 756 052.



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> JAKINGARRIXA

Etxe izenak (1)

Baserriko izen batzuekin pasau dan moduan, kaleko zenbait etxeri be lanbidiak emun doste izena. Hona hemen horreittako ofizio batzuk, baten batzuk aittaketiarren: *ehule, enterradore, errementari, harrijoilla, kapagin, kirru, konfittero, perratzailla, sillero, santu, txaiñ(a), txapa, zirinkagin/txirrinkagin, uztargin,...* Orainguan, lanbide batek etxiari izena emundako kale-etxe batzuk agertuko dittugu, jakiñaren gaiñian izten doskueiñak sasue batian ogibide hori eukan famelixia edo lagunen bat etxe horretan bizi zala:



Harrjoilliarena
(Aita Madina kalia)



Perratzailliarena
(Aita Madina kalia)



Zirinkagiñena / Txirrinkagiñena
(Patrua kalia)



Konfitteruena
(Patrua kale eta Kale Barrixa arteko kantalian)

>> Sinonimuak

Billatu lanbidiak adierazten dauein berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------|--------------------------------|
| 1. Txokolaterua | A. Uztargilea |
| 2. Errementarixa | B. Pilotagilea |
| 3. Uztarrigiña | C. Eiherazaina |
| 4. Errotarixa | D. Txikitzailea |
| 5. Ontzigiña | E. Urtzailea |
| 6. Perratzaillia | F. Eltzegilea |
| 7. Pelotagillia | G. Txokolategilea |
| 8. Txipitzaillia | H. Errementaria, Arotza (Naf.) |
| 9. Urtzaillia | I. Hazama |
| 10. Iñudia | J. Ferratzailea |

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Kanpixa

Zenbat oñatiarrek daki gaur egun nun eguen **Kanpixa baserrixa**? Hiruregoi urtetik gorakua edota Goribar-Garibai-San Pedro aldekoa baldin bada, tira; bestela, nekez, nahiz asko eta asko hurretik pasau sarri, lanerakuan edo pasiuari. Egixa da **inguru hori dezente aldatu dala azkenengo hamarkadatan**. Hor agiri diran etxe gehixenak zutik irauten daue orainddiok; Kanpixa falta da, hain zuzen be. Baiña kanbixorik nabarmenena hutsik dagozen sailletan suertau dira, fabrikaz eta almazenez bete diralako.

Kanpixa aspaldiko izena da Oñatiko historixan. **Kanpia** eta goratxuago dague **Kanpiazelai** XV. gizaldira orduko agerketan dira dokumentuetan. Garbi dago bata bestiarekin zerikusixa eukala. Argazkiko **etxe haundi ate arkoduna Zubiete da**, eskumakaldian sasoi bateko errenteruaren etxiarekin. Eta **eskumaragokua da Kanpixa**, Ulma Packaging lantegirako sarrerria moldaitteko bota zana. Akordaitten zarai?

Beste galderatxo bat. **Oñatiko zein auzotan eguen Kanpixa**? Ezta erantzun samurra. Fotografixan hiru auzo agerketan dira: aurrian hutsik dagozen lurak Goribarkuak dira: gaur egun Lur Gorrik, Eguzkialdek, Barrenzelaiñeko zerriak eta udalaren biltegixak beteten dituduan saillak; kamiñuaz bestaldeko Zubiete ta Kanpixa baserrixak Garibaiko partian dagoz, berez Goribarkuak izan biharko lirakeen arren; arrazoia zera da: horraiño Goribar eta Garibai arteko **mugia Irabiartza errekatxuak markaitten dau**: Sanoner Etxebarri, errekan gora ezkeraldian, Goribar da, eta Dolaetxe, eskumaldian, Garibai; Irabiartza errekatxua Zubiete eta Kanpixaren atzetik pasaitten dan/zan ezkerreko, Goribarkotzat hartu biharko gittuke. Baiña...

Halako **salbuespenak eztira gaurkuak**. Atzian agiri diran etxiak San Pedro edo Torreauzokuak ditudugu: Kalejako etxe-illaria, Elazarra atzerago eta Azkonitza eskuman eta goixan. Hor be Artixa errekiak egitten dau mugia: ezkerretara Torreauzo, eskumatare Goribar eta Garibai. Baiña **zer dala ta esaten xate Garibai torria eta Garibiko erroia** orain San Pedro barruan dagozen bi baserri horreiri? Bueno, gaurkoz nahikua, ezta?

Fotografixia Manolo Etxaniz zubillagarrak atara eben eta berrogei urtetik gora euki leike. Guri bere alaba Maiteren bittartez aillegau xaku. Milla esker!

GURE ETORKIZUNA ZAINTZEN JARRAITZEN DUGU

ESKERRIK

bezero eta herritar guztiei

ASKO!!



#AupaAloña